



ARGIA

HERRITARREN KAPITALA IOSTEN



ANA LESBIKOMIKIA

FEMINISMOTIK MEMORIA EGITEN

ALTERNATIBEN HERRIA IRUÑEAN





ARGIA Jendearen **AZOKA**n elkar elikatzen dugu *Gurezat musutruk!*

**Ostegun goizero jarriko ditugu eskura
musutruk diren eskaintzak. Bixi ibili!**

Astero Bizi Baratzeako bi lamina eta askoz gehiago



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Txina munduko soroak erosten ari da janari ekoizle handiena izateko

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Nerea Ibazabal
- 19 Ana Mendia
- Edu Zelaiaeta Anta
- 20 Katixa Dolhare-Zaldunbide



Margaret Thatcher parodiatu dute Alternatiben Herria azaltzeko egin dituzten bideoetan.

- 27 GURE ESKUBIDEAK
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIAKO AZOKA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 DISKOA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: KATELIN AL LANN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Garazi Arrula hizkuntzen arteko arrakaletan hazka / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | Iruñea, Alternatiben herria: Bai Margaret, posible da / Xabier Letona
- 28 | Bizitza Da Handiena: herri boteretik "Euskal Erregimena" borrokatuz / Maddi Txintxurreta
- 34 | Euskal Herriko gatazka armatua: memoria feminista eraikitzen / Amaia Lekunberri
- 37 | Euskaraldia: Aurten herritarrek, hurrengoan entitateek hartuko dute ardura / Onintza Irureta
- 43 | Teresa Castro: "Zergatik izan behar du negatiboa Anaren itxura maskulinoak?" / Mikel Garcia
- 46 | Jack Kerouac-en *Errepidean*: Askatasun bila dabiltzanentzat / Gorka Bereziartua

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AUERRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus

A photograph showing an archaeological excavation. In the foreground, a man wearing a tan cap and a green t-shirt with 'KANTZADI' on the back is kneeling and working on the ground. He is wearing black gloves and using a small tool. To his right, another man in a green shirt is also working. In the background, a third man is visible. The ground is dirt and contains several human remains, including a large skull in the foreground and various bones. A white label with the number '1' is placed near the skull. A red bag and a shovel are also visible on the ground. The overall scene is an active archaeological dig.

PANORAMA

Ezkabako ihesa, 80 urteren ondoren

Maiatzaren 22an bete dira 80 urte Europan inoiz izandako kartzela ihesaldi handiena gertatu zela. 1938ko egun hartan San Kristobal gotorlekutik Ezkaba mendiko mazeletan behera abiatzea erabaki zuten 798 lagunetik 200 inguru hila zituzten ehizakiak bezala. Asko, inguruko herrietako hilerri edo bide bazterretan lurperatuak izan ziren, argazkiko biak bezala. Urteurren egunean atera dituzte isiltasunetik Lenarotzen, herritar baten testigantzari esker: fusilatuak izan ziren tokitik 50 metrora lurra ematera derrigortu zuten. Hezurrak berreskuratuzko unean Antsoaingo lehen hezkuntzako gaztetxoak ere izan dira, oroimena eta bakearen inguruko programa baten baitan. Ereiten duguna baikara.

Argazkia: Idoia Zabaleta / Foku · Testua: Urko Apaolaza Avila



EAJk PPren aurrekontuak babestu izanak haserrea piztu du sare sozialetan.



“Aurrekontu gabe, luzaro edukiko genuke 155a; onartuta, epe labur batean”

Andoni Ortuzar,
Radio Euskadin



“EAJ bitartekari izan zitekeen, eta azkenean, 155aren parte da”

@yeyaboya



“EAJ, uste nuen ulertu zenutela hau demokrazia kontu bat zela, euskaldunei kendu zizueten hura. Baina badirudi diru kontua dela. Lastima”

@BeatrizTalegon



“Datozen hauteskundeetan EAJri botoa emango diozuen guztiok Katalunia saldu duzue. Gure Esku Dago ala ez? Zuen esku zegoen eta eskuin muturra aukeratu duzue. Bejondaizuela!”

@asarriegi



ARITMICOS

Espainiako Estatua ikertuko dute, adierazpen askatasunaren aurkako auziengatik

Argia

Adierazpen askatasunaren aldeko No Callarem kolektiboak Europako Batzordeari helarazitako eskarian, Espainiako Estatua egiten dituen adierazpen askatasunaren urraketa etengabeak aztertze beharra adierazi zuten. Espainiako Estatua Europako Batzordearen ikerketapean jarriko dutela erantzun du Batzordeak.

Erantzuna Valtonyc rap-kantariaren erbesteratzearekin batera heldu da. Gazte kataluniarrak maiatzaren 24an zeukan espetxera borondatez sartzeko azken eguna. Hiru urte eta erdiko kartzela zigorra jarri zioten abestietan

“terrorismoa goratzeagatik” eta “Espainiako Errege-etxea iraintzeagatik”. Valtonyc-en kasua da No Callarem kolektiboak Europako Batzordeari helarazitako eskarian azaltzen den kasuetako bat.

Evaristo identifikatu du Guardia Zibilak

Handik bi egunera, zalaparta sortu duen beste gertakari baten berri izan dugu. Evaristo *El Drogas* Gatillazo taldeko abeslaria (argazkian) identifikatu du Guardia Zibilak Jerezen (Espainia), kontzertu baten ostean. Haren abestietako letren aurkako salaketa bat jaso ostean joan da Guardia Zibila Evaristo Paramos musikariaren bila.

“Liberazio politikorik ez da izango liberazio kulturalik ez bada”

AMETS ARZALLUS, BERTSOLARIA ETA KAZETARIA

“Ekarpenik interesgarrienak feminismoetatik heldu dira, bertsogintzara eta oro har diskurtsoetara. Eta ekarpen interesgarrienetakoa da sistema bere osotasunean zalantzan jartzen duena, gure burua oso aurrerakoitzat jo dezakegulako genero ikuspegitik bertso batean, baina gero oso ikuspegi okzidentaletik kantatzen diogu munduari (...) Inor ez dago kontraesanetatik salbu, eta beharbada horiek dira bertsotarako gairik interesgarriena. Nola korapilatzen diren gure baitan, gure gorputzean kasik”. **PLAZA HUTSA TB (2018-05-22)**



FAUNA PUBLIKOA

"Begi-bistakoa zen PPk problema bat zeukala ustelkeriarekin"

Aitor Esteban, EAJren bozeramailea
Espainiako Kongresuan (ElDiario.es)

EZ HANKA EZ BURU!



Yanny ala Laurel



Gorka Bereziartua Mitxelena
 @boligorria

Iritsi al zaizue Whappera audio hori? Badakizue, ingelesezko izen bat esaten duen zera: batzuek argi eta garbi "Yanny" entzuten dute, beste batzuek berriz, "Laurel"; alegia, bi izen oso diferente. Jarri lauzpabost lagun gela berean audio bera entzuten momentu berean: seguru ez direla ados jarriko. Eta klaro, egoera nahiko martzianoa da, "Laurel" entzuten baduzu pentsatuko duzulako "Yanny" entzuten dutenek belarrian kortxo baten tamainako tapoia daukatela. Eta alderantziz.

Bueno, ba kontu horrekin nahiko flipatuta dabil jendea ia mundu guztian. Hemen ez hainbeste, euskaldunok ohituta baikaude horrelako fenomenoetara EAJren azkenaldiko politikari esker. Goizean onartzen dizute EAJerako Estatutu berriaren hitzaurre bat zeinean jasotzen diren erabakitze eskubidea, zazpi lurraldeak eta Espainiako Estatuarekin aldebiko harremana; arratsaldean Mariano "a por ellos" Rajoyren aurrekontuak salbatzen dituzte Katalunian 155. artikulua indarrean egon arren, horrek Hego Euskal Herrian ere izan ditzakeen ondorio eta guzti; eta handik bi egunera, Gürtel auziko sententziak esaten duenean PP, gutxi gorabehera, talde kriminal bat dela, prest daude PSOErekin flirt baterako, negozioa Rajoy tronutik kentzea bada ere.

Jokaldi horietatik zein den mugimendu taktikoa eta zein estrategikoa? Ba, "Yanny" eta "Laurel" aldi berean esaten duen audio horrekin bezala, bakoitzak entzuten du entzuten duena. Edo entzun nahi duena. Eta mundu guztia kontent dagoela dirudi edo, mundu guztia kontent dagoela Alfa eta Omegaren partiduak, "eskatu eta emango zaizue" esaten duen bakoitzean agertzen baitzaio bere premian dagoen ilusoren bat. ■



ANALISIA



Jean-René Etchegaray eta André Garreta erdikoak dira, hurrenez hurren.

Iparraldearen orena heldu da



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: JEAN-PHILIPPE DÉJEAN

Euskal Hirigune Elkargoa eraikitze lanean ari da. Ipar Euskal Herriaren erakundetze politikoa baitezpadakoa da Euskal Herria izanen bada. Beharrezkoa eta ona da, besterik gabe, eraiki ahala zer errana ematen duelako. Errate baterako, Baionako Merkataritza eta Industria Ganberako lehendakari André Garreta eta Euskal Elkargoko lehendakari Jean-René Etchegarayren arteko lehen kalapita ezagutu dugu garraio zerga dela-eta. “Ez ditugu politikarien hitzak entzun nahi, gezurrak baino ez dituzte sakatzen” erran du Garretak. Ez dago ados garraio politika finantzatzeko Elkargoak ezarri duen zerga-tasa sistemarekin. Etchegarayren hitzetan, “metropolien arazoak dituen hirigunea (Euskal Elkargoa) eraikitzen ari dira, eta hori egitea ez da aise”. Dei diezaioغن Hiriguneari Lurraldea –Herri Elkargo–, eta hauxe ere ulertu dezagun: elkargoaren eraikuntza berau osatzen duten guztien artean ordaindu beharra dago. Ez dut Garretaren eta Etchegararen arteko kalapitari buruzko iritzirik emanen. Alta bada, hainbat datu ekarri nahi dut instituzio berriaren eraikuntza ulertarazi aldera.

Eragileen arteko lehen talka ezagutu dugu elkargoa eratzeko lehen lanetan. Zerga aplikatzeko sistemak eragin du tu-

pust hori. Alegia, elkargo edo kolektibitate bat osatzean, ekonomiaren eta identitatearen izaerak definitzea funtsezkoa da, baita ezinbestekoa ere adostasunean trenkatzea elkargoa tentuz osatuko bada.

Lapurdin 256.878 biztanle dira, Baxenabarren 31.784 eta 14.781 Zuberoan. Garraioa antolatzerakoan Lapurdiko Euskal Kosta-Aturri hirigune elkargoa eta Hego Lapurdi elkargo izandakoek izan dute ardura gehien orain arte. Engoitik, elkargoa osatu ahala, Lapurdi barnealdea eta beste bi lurraldeak integratu behar dira erkidego baten jitea hartuko duen elkargoa osatuko bada. Hots, lurraldea “harmonizatu” beharra dago. Garraio publikoa finantzatzeko diru publikoa behar da. Zerga lurralde osoan jasoko da. Alabaina, enpresak dira zerga horren erantzule nagusiak. Hamai-ka langiletik gorako enpresek ordaindu beharko dute garraio zerga. 10.000 biztanletik gorako herrietako enpresek egin dute ekarpena orain arte, Frantziako legearen arau egin ere. Ezagutzen al dituzue “barnealdean” halako tamaina duen herririk? Edo hamaika langile baino gehiago duen enpresa asko?

Euskal Hirigunea ez ezik, Herri Erkidegoa eraikitze tenorea heldu da, baldin eta Ipar Euskal Herririk izanen bada. ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Arizmendiarrietatik Fagor eta Eroskira



Juan Mari Arregi

Herritarrek aukera izan dute dokumental baten bidez Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitza eta lana ezagutzeko: *Arizmendiarrietak, gizon kooperatiboa*. 1941etik aurrera euskal kooperatibagintzaren barruan hasi zuen esperientzia berriaren sortzaile eta bultzagile izan zen Markinako apaiza, gazte katoliko batzuen eskutik, Mondragón Corporación Cooperativa izenez ezagutzen dugunaren bidez. Egun, Euskal Herriko eta Europako enpresa talde garrantzitsuenetakoa dugu. Bere enpresa ezagunenak dira Eroski, Laboral Kutxa eta Fagor.

Bokazio kooperatibo eta komunitarioak, Arizmendiarrietak *mesias*-a eramane zuten orduan zegoen enpresa-sistemaren ikuskera kapitalista gaudituko zuten proiektuak sortzera. Lehen urteetan bide hori segi zuten. Ez dakigu ordea zer esango lukeen gaur *gizon kooperatiboak* azken urteetan Eroskirekin eta Fagor Etxetresna Elektrikoekin gertatutakoa ikusiko balu. Enpresok, munduan hedatu eta lehiatu ahal izateko, borondatezko ekarpenak izenpetu behar izan zituzten oso interes altuekin, eta hainbat urteren ondoren, ezin izan zieten betebeharre aurre egin. Fagorrek hondo jo zuen, eta milaka aurreztaile txiki eta langile euren dirua berreskuratu ezinik geratu ziren. Eroski oso zorpetuta dago eta bere aurreztaile txikiek ere arazoak dituzte.

Enpresa kapitalisten lehiakortasunaren eta globalizazio ekonomikoaren aurrean, kooperatibagintza eredu horrek huts egin al du? Bere kudeatzaileen akatsa eta porrota izan da ala sistema osoarena? *Gizon kooperatiboak* nola azalduko luke? Oniritzia emango al lieke Fagor eta Eroski porrotera eta zorpetze izugarria eramane zuten operazioei? Galdera horiek ez dira erantzuteko errazak, testuinguruak ezberdinak direlako. Baina badago erantzukizun larri bat.



JEAN PHILIPPE GIONNET

Bidaxunetik Pauera, La Passem

BIDAXUNE. Korrikak beste ahizpa bat dauka: okzitaniaren aldeko La Passem. Lasterraldia maiatzaren 25ean abiatu zen Bidaxunetik, eta bi egun geroago Pauen bukatu zen, 400 kilometro inguru egin ostean. Arango bailaran, Katalunian, ofiziala da okzitaniara, baita Italiako hainbat bailaratan ere, baina Frantziako hegoaldean ere hitz egiten dute herritarrek, tartean Lapurdi eta Baxe Nafarroa iparraldean, Angelutik Akamarrera. Parisko politikek zapaldua, hizkuntzak gainbehera egin du Bigarren Mundu Gudatik.

Florentziako erraustegi proiektua atzera bota dute

Zero Zabor

@zero_zabor

Italiako Estatu Kontseiluak (Espainian Auzitegi Konstituzionalak dituen funtzioak dauzkanak) behin betiko baztertu du Florentzia ondoko La Pianan erraustegia egiteko proiektua. Ipurdiko galanta, Italia osoan errausketa sustatu duen Matteo Renzi lehen ministro eta Florentziako alkate ohiarentzako.

15 urteko borroka

15 urtez borrokatu ostean, garaipen bikaina izan da Rifiuti Zero mugimenduarentzat eta bereziki Florentziako errausketaren kontra etengabe mobilizatu diren Mamme No Inceneritore elkar-teko emakumeentzat.

Azken ebazpena

2016an ingurumen aferak aztertzen dituen auzitegiak ebatzia zuen baimenak bertan behera uztea, baina agintariak tematuak ziren erraustegia aurrera ateratzen. Erromako epaileek azken ipurdikoa eman diete orain.

Etorkizuna

Hedabide italiarretan zalaparta eragin du albisteak. Rossano Ercolini Zero Waste Europe koordinakundeko lehendakariak esana zuen, Florentziakoan jokatzen zela Italiako erraustegi berrien etorkizuna.

PRESTAZIO
SOZIALAK



%1

baino ez da Bizkaiko Diputazioak gizarte laguntzetan atzeman duen iruzurra, horretarako abian jarri duen ekimenean. Eta iruzurra baino gehiago izan da erabilera desagokia, iruzurrerako asmorik ezin baita ziurtatu.

1,4

milioi euroz ari gara. Ogasunean adibidez, 477,5 milioikoa izan da iruzurra Bizkaian.



GURTEL AUZIA

PP da ustelkeriagatik zigortutako lehen alderdia Espainiako Estatuan. Orotara 351 urteko espetxe zigorra ezarri die Espainiako Auzitegi Nazionalak 37 akusatuetako 29ri, tartean Luis Bárcenas PPko diruzain ohiari eta tramaren buru Francisco Correari.



ABORTU ESKUBIDEA

Konstituzioan abortua despenalizatzearen alde bozkatu dute herritarrek Irlandako erreferendumean. %66ak bozkatu du alde, historikotzat jo den herri galdeketa. Lege proposamena abiatuko dute orain parlamentuan.



SUTEA GAROÑAN

Urtarrilean sute-hasiera bat izan zen Garoñako zentral nuklearrean, baina orain arte ez dute ezagutzera eman. Urtarrilaren 31n antzeman zuten sutea, dekantatze-ontzien gelatxo batean. Ondorioz, suteen aurkako brigada bertaratu zen.

Txina munduko soroak erosten ari da janari ekoizle handiena izateko



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Txinako korporazio publiko eta pribatuek gaur egun mundu osoko hamar milioi hektarea lur lantzen dituzte. Indonesiatik Ukraina edo Frantzia barrena Boliviara, Txinak 2010etik 2016ra arte bostez biderkatu ditu atzerriko soro eta oihanetako inbertsioak. Pekingo gobernuaren ildo estrategiko nagusietako dira, bai munduko herrialde handieneko biztanlegoaren elikadura bermatzeko eta bai planetako janari ekoizle nagusi bihurtzeko datozen urteetan.

Nekazaritza edota elikadura burujabetza interesatzen bazaizu, edo besterik gabe ulertu nahian bazabiltz zergatik desagertu diren gure plateretatik duela 40 urte ia eguneroko otordua ziren babarrunak horien orde eguneroko ogia bihurtuta orduan ezagutzen ez genituen pizzak... ondo egingo duzu tarteka bisitatuz *Farmlandgrab* webgunea. "*Farmlandgrab* [Baserri lurren lapurretak]: Munduko baserri lurak harrapatzeko eromenaz eta honi aurre egiteko herriek daramatzaten borroke".

Planeta osoan kapital handiak burutzen ari diren lur lapurretaz prentsan plazaratutako albiste funtsezkoak biltzen ditu *Farmlandgrab*-ek, gaiotan erreferentzia den GRAIN elkarteak sustaturik. Berrikitan argitaratu du maiatzeko lehen astean Txinako Nekazaritza Ministerioak antolatutako bilkura garrantzitsu baten laburpena: "Txina zehazten ari da laborantzarako '*Go global*' ['Mundializatu zaitez'] programa".

Jardunaldian Nekazaritza Ministerioan nazioarteko elkarlanaz okupatzen diren goi funtzionarioek aztertu zituzten Txinan bertan bezala munduan alor honetan sortu diren aldaketa eta aukera berriak. Atzerrian inbertitu nahi duten konpainiei laguntzeko agindu zehatzak jaso zituzten Pekingo lider nagusien-gandik.

Pekingo administrazioko eta alderdiko goi karguek nekazaritzako inbertsioak lagundu behar dituzte alor estrategikotzat hartuta: nekazaritza

industriako negozioentzako politika landuz, nazioarteko negozio eta inbertsioetan aktiboki parte hartuz, abiadura emanez nazioarte mailako labore enpresa eta negozio taldeen sorrerari eta enpresei lagunduz tamainaz handitu eta munduan zabaltzen. Bileran Hang Xang-fu ministroak funtzionarioei oroitarazi zien Xi Jinping lehendakariak berebiziko garrantzia ematen diola gaiari.

Txina mundu mailako nekazaritzan eta elikadura ekoizpenean potentzia nagusi bilakatzeko estrategiaren barruan dago *Bi guneak* ekimena. Alde batetik, *Erakusketa guneak* antolatu dituzte mundu osoan, Tajikistanen, Mozambiken, Ugandan, Fijin, Laosen, Kanbodian... Hauetan Txinako konpainiek lekuko gobernu edo konpainiekin lan eremu bereziak antolatzen dituzte, merkataritza librezkoak. Bestetik, *Esperimentazio guneak* zabaltzen dituzte Txinan bertan, oso izaera ezberdineko konpainiak elkarlanean jarri eta atzerriko proiektuetan elkarrekin murgiltzeko helburuz: granja estatalak, industria kimiko publikoak, pentsu, hazi, makineria edo arrantzakoak.

Ahaleginak badu motiborik. Txinak munduko biztanleen %20 edukita, horiek asetzeko ez dauka munduko nekazaritza lurren %8 baizik. Hori gutxi balitz, kutsadurak hondatu dizkie so-roen laurdena. Aditu askok ohartarazi du, bestalde, mende luzez emankorrak izan diren alorren oparotasuna murriztu egin dela txinatarrek laborantza



industrial orokortzen hasi zirenetik. Horrela, derrigor atera behar mundura elikagai bila.

Txinak nekazaritza alorrean atzerrian inbertitzen duena boskoiztu egin da 2010etik 2016era artean, 3.300 milioi dolar gaituz. Klase guztietako mozkinen produkzio, transformazio eta salmentan sartu dira: oliotarako palmondoak eta kautxu-arbolak Asia Ekialdean, soja eta koltza ekoizteko etxaldeak Errusian, esne eta haragitarako behitegiak Zeelanda Berrian eta Australian, alpapatzen berezitutako lurak AEBetan eta Bulgarian...

Lurra, laboreak, okela, haziak, kimikoak...

Txinak atzerriko inbertsioak planifikatzeko, edozein arlotakoak direla ere, bi eremu estrategiko dauzka ezarriak. Batetik *Zetaren Bidea Gerriko Ekonomikoa*-k biltzen ditu Asia Iparraldeko eta Europako herrialdeak, hasi Siberiatik eta Alemaniaraino. Bestetik, *Zetaren Itsas Bidearen* baitan daude Indonesiatik hasita Egiptorainokoak, Asiako Hegoaldekoak nagusiki.

Biak lotuta, Txinaren harreman komertzialetan lehentasuna osatzen duten *Gerrikoa eta Bidea Ekimena*-ren baitan zentratzen dituzte txinatarrek nekazaritzako inbertsio nagusienak: Asian erdia, Europan %15, Ozeanian %14, Afrikan %12, Latino Amerikan %6 eta Ipar Amerikan %2. Pekingo gobernuak berak emandako kopuruok erakusten dute Afrikak nekazaritza



'Quartz' aldizkarian Lily Kuok plazaratutako argazkian, agronomo txinatar bat Ruandako Huye eskualdean abian daukaten Nekazaritza Teknologiaren Erakusketa Gunean, mutiko ruandar batzuekin. 22 hektareatan ugandarrei erakusten diete arroz, onddo, masusta eta bestelako uzten martxa. Horrelako 23 gune dauzka Txinak Afrikan, lekuko nekazaritza aurreratzen laguntzearekin batera agro-industria txinatarrari bertako ateak irekitzeko.

mailan txinatarrentzako daukan garrantzia puztu egin dutela hedabide zenbaitek.

2004 eta 2012 artean txinatarren atzerriko inbertsioak batik bat laborantzako ekoizpenak eskuratzeko helburuz egin ziren: palma-olioa, azukrea, manioka, zura, arrainak eta bestelako lehen-gaiak. Aldiz, geroztik Txinako enpresak hasi dira Europar, Ipar Amerikan eta Ozeanian indarra daukaten korporazio agro-elikadurazkoak erosten.

2017an ChemChinak osatu zuen Txinak atzerrian egindako erosketa handiena, 43.000 milioi dolarretan bereganatuz munduko hazi eta fitosanitarioetan txapelduna den Syngenta suitzarra. Beste erosketa nabarmena 2014an burutu zuen txerri okeletan berezitutako WH Group txinatarrak AEBetako Smithfield Foods bereganatuta.

Konpainia berak 2017an txerri eta oilasko haragiaren transformazioan ari diren konpainiak irentsi ditu Polonian eta Errumanian, muturra Europar erosago sartu nahian.

Baina lurraren jabetzak badu beti erakargarritasun berezi bat eta Txinak elikagaien mundu mailako salerosketan lortu nahi duen nagusitasunaren adierazgarritzat ikusi dira planetan zehar ugaritu dituen lur erosketak... *betiko* baserriar askok lapurretatzat bizi dituztenak, bai haiek lur horietatik bortxaz kanporatu dituztelako, bai atzerriko korporazioek lekuko eliteekin herri jabe-goko lurak pribatizatu dizkietelako.

Afrikan hasi ziren – Tanzania, Senegal, Sierra Leona, Zambia... – hemen hazten den arroza, artoa, manioka edo sesamoa eramateko. Geroztik, bost kontinentetako edozein bazterretara zabal-

du dira. Lehen aipatu den WH Groupek AEBetan bertan 40.000 hektarea erosi zituen. Bolivia, Kuba, Jamaika, Venezuelak, Argentina...

Europar nagusiki Ekialdean inbertitzen dute txinatarrek, Errusian, Ukrainan, Bulgarian eta beste. Baina baita Mendebaldean ere. Berrikitan zalaparta pixka bat izan da Frantziar Hu Keqin milioidun txinatarrak egin delako garia hazten duten 3.000 hektarea sororen jabe, bere hitzetan "ogi frantsesari Txinako merkatuak zabaltzeko". Eta jendeak oroitu dira dagoeneko 150 ardo famatu, gehienak Bordelekoak, txinatarren eskuetan daudela.

Nekazaritzaren industrializatzea bizkortuz doaz, lurren jabetzak kontzentratuz eta munduko potentzia ekonomikoak –ez txinatarrak bakarrik– biharko elikadura kontrolatzeko lehian ari dira. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

«Euskal literatura munduratzeko ontzat ematen da gaztelaniatik pasatu beharra»

Garazi Arrula

Hizkuntzen arteko arrakaletan hazka

Hiru faktorek hartaratuta ekin omen zion Garazi Arrulak Euskal Herriko autoitzulpen praktikak ikertzeari: batetik, gero eta euskal idazle gehiago hasiak zirelako beren lanak gaztelaniara edo frantsesera itzultzen; bestetik, gure egoera soziolinguistikoak kezka eragiten ziolako; eta azkenik, literatura maite duelako. Autoitzulpena irakurri eta zalantza piztu bazaizu, *google translator*-az edo zertaz ari ote garen, haxe duzu irakurgai aproposa.

Testua: Danele Sarriugarte Mochales

Argazkiak: Dani Blanco

Oraintxe bukatu duzu tesia: “Autoitzulpenaren teoria eta praktika Euskal Herrian”. Zer da autoitzulpena, ordea?

Autoitzulpena da, *grosso modo* esanda, nork bere diskurtsoa, aurrez dagoen testu bat, izan ahozkoa izan idatzizkoa, beste hizkuntza, dialekto edo hizkuntza-aldaera batean ematea.

Eta zer aztertu duzu?

Alde batetik bere zabalean aztertu dut autoitzulpena, praktika modura, euskaldunok egunerokoan egiten dugun jardun zabaldu modura. Beste alde batetik, literatura hartu dut oinarritzat eta aztertu dut beren obra erdararen batera itzuli duten euskal idazleek zer diskurtso duten praktikarekiko eta beren tesuak itzultzean nola jokatzten duten.

Nola aztertu duzu hori?

Hasteko, aukeratu dut hamar idazle-ren obra bana: Aurelia Arkotxaren *Septentrio*, Itxaro Bordaren *%100 Basque*, Harkaitz Canoren *Belarraren ahoa*, Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*, Aingeru Epaltzaren *Tigre ehizan*, Karmele Jaio-ren *Amaren eskuak*, Miren Agur Mea-bereren *Kristalezko begi bat*, Eider Rodriguezen *Eta handik gutxira gaur*, Ixiar Rozasen *Negutegia* eta Iban Zalduaren *Euskaldun guztion aberria*.

Zergatik hamar horiek?

Lehen azterketa denez, nahi nuen ahal zen heinean Euskal Herriko autoitzulpena bere zabalean hartu. Hamar hauek garaikideak dira, prosazkoak, eta Euskal Herriko geografia guztiaren adie-

Garazi Arrula Ruiz

Tafalla, 1987

Magisteritza eta itzulpengintza ikasia, Euskal Herriko autoitzulpenaren inguruko doktore-tesia aurkeztu berri du, Ibon Uribarri Zenekortaren zuzendaritzapean. Besteak beste, Amélie Nothomb eta Anaïs Nin-enak ekarri ditu euskarara, eta iragan urrian argitaratu zuen estreinako ipuin-liburua: *Gu orduko hauek* (Xtalaparta). Orain, langabezian dago.

razle. Adibidez generoaren aldetik ez da errealitatearen isla, zeren emakume gehiago hautatu dut gizonak baino, bai-



na hori nahita egin dut. Oro har lagin askotarikoa eta errepresentatiboa da.

Eta behin horiek hautatuta?

Hamar obra horien hamalau autoitzulpen hartu ditut –hamarretik lau obrak bina autoitzulpen dituzte, bata Euskal Herrian argitaratua eta bestea Euskal Herrikanpo–. Euskarazkoak eta itzulpenak alderatu ditut, eta horretarako bi gauzari begiratu diot: alde batetik, begiratu dut nola eman diren nazio identitateari loturiko kultur erreferentziak, adibidez nola itzuli diren *euskaldun*, *euskal* edo *Euskal Herria* terminoak, betiere kontestua kontuan hartuz. Gero, aztertu dut nola aipatzen diren beste hizkuntzak euskarazko testuetan eta nola aipatzen den euskara erdarazkoetan, eta halako ondorio batzuk ateratu ditut. Tesi batean ezin dira 24 testu xehe-xehe aztertu, orduan aukeraketa hori egin dut nahiko adierazgarria izanzen zelakoan.

Hasieran bazenuen susmoa, autoitzulpen literarioa ez zela bazterreko edo salbuespeneko praktika. Susmoa berretsi duzu.

Katalogoa osatzea izan da tesiaren atal handi bat. Elizabete Manterolak egin zuen Euskal Literatura Itzuliaren katalogotik abiatu naiz. Hor sartzen ziren euskaratik egindako itzulpen guztiak: beste batek egindakoak, kolaborazioan egindakoak eta autoitzulpenak. Nik autoitzulpenen zerrenda eguneratu eta osatu dut, oinarri bat eta ikuspegi orokor bat izateko. Katalogoari esker ikusi da autoitzulpena oso jardun zabaldua dela gure txikian, zeren 2015era arte, bildu ditut 325 izenburu eta 125 autoitzultzaile: alegia, egile batek baino gehiagok bere obra bat baino gehiago autoitzuli du.

Emango zenituzke produkzio horren ezaugarri orokor batzuk?

Genero aldetik gehien-gehien haur eta gazte literatura autoitzultzen da eta esan dezakegu arrazoiak bat izan daitekeela estatuko argitaletxeek akordioak dituztela beren artean. Hamar liburutik zortzi gaztelaniara autoitzuli dira. Desoreka handia da, beraz, frantse-saren eta gaztelaniaren artean. Edizio elebidunei edo eleaniztunei begiratuta, hizkuntza nagusien arteko aldea txikitzen da zertxobait. Beste datu esanguratsu bat, hauxe: autoitzulpen gehienak, erdia baino gehiago, Euskal Herrian ka-



leratu dira. Kronologiari begiratuta, azken hiru hamarkadetan argitaratu da autoitzulpen gehien.

Autoitzulpena itzulpena dela diozu. Kontrakoa uste al da?

Bai. Autoitzulpenetan, editoreek, prentsak eta autoreek barra-barra esaten dute erdarazkoa itzulpena ez baizik bertsoia dela, edo egokitapena, edo berriidazketa... Hori justifikatzeko, beti esaten dute moldaketak egin dizkiotela testuari, baina halakoak ez dira soilik itzulpenetan gertatzen; esate batera, berriargitalpenak ere aprobetxatzen dituzte autoreek aldaketak sartzeko, Mikel Ayerbe ikertzaileak egiaztatu duenez.

Gainera, itzulpen-jardunak berak moldaketak dakartza nahitaez. Funtzionalismoak erakutsi duenez, itzulpengintzan joera dago testua helburu den kulturari edo irakurleari egokitzeko, nahiz eta literaturan ez den hain agerikoa, egiletasunak balio sinboliko handia daukalako. Nahiko funtsgabea da autoitzulpenak itzulpenak direla ukatzea, zer eta moldaketak egin zaizkiola argudiatuz. Horren atzean zera dago, itzulpena hitzez hitzekoa delako ustea. Iruditzen zait ezezagutza dagoela arrazoiak horren atzean; horregatik bilatzen dira beste termino batzuk.

Badaude bestelako faktoreak ere, noski: komertzialki komenigarriagoa da esatea autoitzulpena bigarren origi-

nal bat dela, edo erdarazko bertso bat, itzulpena dela esatea baino. Sistema espainolak, adibidez, nahiago ditu autoitzulpenak, alde batetik errentagarriagoak direlako, baina baita logika jakin bati erantzuten diolako ere.

Zer logika da hori?

Alde batetik, itzulpenak kutsu negatiboa du oraindik ere, eta are gehiago euskara tarteko denean, badirudi zalantza gehiago pizten duela. Bestetik, badago asimilazio nahi bat. Espainiako literatur sistemak badauka indar zentripetu bat eta nahi du hizkuntza periferikoetan sortzen diren obrak hizkuntza hegemonikora ekartzea eta ahal dela autoitzulpenaren bidez egitea, izan dadin bigarren original bat eta funtzionatu dezan jatorrizko bat bezala. Asimilazio orok dakartzan arriskuak dakartza horrek, eta edukiaren esku geratzen da maiz euskal identitatea adieraztea edo ez. Alde horretatik, tesian iradokitzen dut euskal sistemak erreproduzitzen duela Espainiaren indar zentripetu hori. Diru publikoz bultzatzen da autoitzulpena, dela sariaketan aparteko kopuru bat itzulpenari emanez, dela aleak erosiz, dela beken bidez. Beharbada itzulpenerako beste bide eta modu batzuk sustatu ahalko lirerateke, hizkuntza gutxituen artekoa, adibidez; egun, ontzat ematen da, munduratzeko, gaztelaniatik pasatu beharra.



Frantziar sistemak ere hala egiten al du?

Ez, eta horrek ez du esan nahi hoberako denik, zeren behintzat Espainiak asimilatu nahi du, aitortzen du badagoela euskal literatura bat, berean integratu nahi duena; aldiz, frantziar estatuan itzulpenek beti bete dute oso leku periferikoa, eta hizkuntza gutxituak ez dira aitortzen, badago mespretxu handiagoa. Oso adierazgarria da zer euskarazko liburu gutxi dauden frantsesera itzulita.

Badago ez autoitzultzea erabaki duen autorerik.

Bai, eta gure kontestuak autoitzultzeko baldintza guztiak ematen ditu, beraz oso esanguratsua iruditzen zait hautu hori. Badago deserosotzat duena bai autoitzulpena bai itzulpena bera, adibidez

Joxe Azurmendi. Hark hizkuntzatik eta kulturatik ulertzen du nazio eraikuntza, mundu euskaldunari eskaini nahi dizkio bere testuak, eta beraz testuinguru horretan ulertzen ahal dugu haren erabakia, ados egon zein ez. Bestetik, Uxue Alberdik adibidez esan du literarioki euskal idazletzat duela bere burua eta ez dela eroso sentitzen erdaraz idazten, nahiz eta eskaini dioten. Ez du ukatzen, hala ere, beraren lanak beste norbaitek itzultzea. Edonola ere, gehiago dira autoitzuli dutenen adierazpenak, autoitzuli ez dutenenak baino.

Autoitzuli dutenek zergatik autoitzuli dute?

Alde batetik ikusten ahal ditugu motibazio pertsonalak, adibidez norberaren

lana beste hizkuntza batean garatzeko gogoia. Beste motibazio pertsonal bat izan daiteke obraren autoretzari edo kontrolari eutsi nahia; nahiko kontrol dudazkoa da, baina tira. Eta horri lotuta mesfidantza itzultzailearekiko. Baina beste testuinguru batzuetan ere aterata da hori dena, ez da gurea eskusiboa. Badaude kanpo faktoreak ere, nahiz eta pertsonala eta kanpokoia beti dauden loturik, baina kanpokotzat jotzen ahal dira "itzultzaile falta" –nahiz eta geroz eta gehiago dauden beste hizkuntzetara ere–, dirua, denbora... Profesionalizazioarekin ere lotura du: horretaz bizi nahi bada, gehienetan, ez da beste biderik.

Zergatik diozu kontrola dudazkoa dela?

Badirudi zilegitasun handiagoa ematen zaiela autoreei, badirudi haiek sortu dutenez obra haiek izanen direla aipose-nak obra hori itzultzeko, haiek dakitelako zer esan duten. Nik beti esan dut haiek dakitela zer esan nahi zuten, gero beste gauza bat da zer geratu den paperean. Bestalde kontrol hori mugatua da ikusi dugulako zer gauza eskatu dizkieten autoreei. Adibidez, Uxue Alberdik kontatu du nola Alfaguarak eskaini zion [Aulki jokia] autoitzultzea, baina eskatu zioten liburua mozteko eta egokitzeke erdal publikora eta erdal sistema literarioko orduko joeretara. Ez zuen egin. Azkenean, gaztelaniazkoa euskal argitaletxe batek ateratu zuen, Miren Agur Meabek itzulita.

Zeuk ipuin-liburu bat argitaratu zenuen iaz. Autoitzuliko zenuke?

Ez. Esan nahiko nuke jarrera politiko bat dela, baina ez da hori hutsean, zeren ez daukat hain landua hizkera literarioa gaztelaniaz, eta horretaz gainera iruditzen zait gaur egun badaudela itzultzai-

Uda euskaraz haur eta gazteentzat!

ekainetik aurrera
Bilbo erdian!

Gazteola*
Haur eta Gazteak

- Tailerrak
- Campus eta udalekuak
- Euskara ikastaroak
- Barnetegiak...

www.gazteola.eus

leak hori egiteko. Bestalde, halako azterketa bat eginda eta ikusita sistemen arteko mendekotasunak, asimetriak eta abarrak, ez dut parte hartu nahi joko horretan.

Autoitzuliz gero beti izango gara mendeko?

Hizkuntzaren egoera soziolinguistikoak eragina du autoitzulpen eta itzulpen jardunean. Adibide bat jartzearen: ez da gauza bera frantsesaren eta ingelesaren artean itzultzea Europan ala Quebecen. Ez dauzka inplikazio berak inondik inora eta horregatik diot hizkuntzen arteko asimetria kontuan hartu behar dela, eta gurea bezalako kultura eleaniztun, periferiko eta mugakide baten konplexutasun horiek guztiak ezinbestean hartu behar direla aintzat autoitzulpen edo itzulpen jarduna ikertzean. Ez nago euskaratik itzultzearen kontra, uste dut euskaratik itzuli behar dela, argi eta garbi, eta hori bultzatu, baina betiere kontuan hartuz nola egiten den, eta asimilazio horretan erori gabe, hain zuzen ere oso erraza delako hor erortzea. Azken batean, euskal literaturan sistematikoki



autoitzultzen da hizkuntza subordinatutik hegemonikora, eta ez alderantziz.

Nola egin dakioke aurre asimilazio nahi horri?

Diskurtso mailan posizionatu zaitezke. Argi esaten baduzu erdarazko hori itzulpena dela, horrek adierazten du aurrez badagoela beste testu bat eta beste kontestu eta hizkuntza batean sortu dela, horrek dakartzan inplikazio eta konnotazio guztiekin. Bertsioa edo berridazketa dela esaten baduzu, ordea, jakina badagoena sorburu-testu bat, baina beti hartuko du hizkuntza hegemonikoan dagoen horrek maila goragoko bat, ez bakarrik euskararen kasuan, beste egoera asimetrico guztietan berdin, zeren dena delako moldaketa horiek ez dira sekula atzera itzultzen euskarara edo, oro har, hizkuntza subordinatura.

Gero, testuan bertan posizionatu zaitezke. Miren Agur Meabek, adibidez, glosario bat sartu zuen *Un ojo de cristal*-en amaieran. Hori posizionatze bat da, oso argi uzten du erdarazkoa itzulpen bat dela. Kultur trasbasea oso nabarmena da, zeren egia esan glosarioan agertzen diren hitz horiek ez dira hain espezifikoak, eta itxuraz ez zegoen beharrik halakorik egiteko. Ez dut esanen goazen orain denok glosarioak egitera, neutralizazioa saihesteko bide bat baino ez da. Beste itzulpen batzuetan, bestalde,

Azken hitza:

Idazle ala itzultzaile?

Idazten eta itzultzen, bietan aritzen direnei sarri galdetzen diete ea zer duten nahiago. Arrulak iskintxo egin dio bata ala bestea aukeratu beharrari: "Autoitzultzaileek identitate bikoitza daukatela eta halako zozokeriak esan ohi dira beti, oinarririk gabe eta argudiatu gabe. Gaur egun, gainera, hain onartua dago identitateen konplexutasuna eta etengabeko eraikuntza... Dikotomiatzat aurkeztzen dira maiz idaztea eta itzultzea, baina nik ez ditut hala ikusten. Bietan dago sortzailletza. Beraz, galdetuko balidate, horixe esanen nuke: sortzailea naizela".

jatorriari lotutako terminoak desagertu egin dira erdarazkoan, ez hala hizkuntzari loturiko erreferentziak: euskara agertzen da, horretarako "premiarik" ez dagoenetan ere, eta ikusi dut hain zuzen euskara agerraraztea izan daitekeela bestela egiten diren neutralizazioak konpentsatzeko eta iruditeria sozial euskalduna adierazteko modu bat. ■



**OPIL OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

Iñaki Deuna, z/g
☎ 94 683 30 60

Artabide, 24
☎ 94 683 19 14

ONDARROA (BIZKAIA)

Akordioak eta urardotzea

Hona behin eta berriro entzuten dugun mantra: "Politika akordioetara iristea da". Nire uste apalean, kalte izugarria egiten du. Izatekotan, honako honetan bihurtu da politika: printzipioen salerosketarako azoka. Hauteskunde-programak erretzeko paperaren parekoak dira jada; pare bat bileretako zupadetan desagertzen dira: "A-rekin akordioa erdiesteko gure proposamen batzuk alde batera utzi behar izan ditugu...". Nork gehiago emango, nork gehiago urardotu agindutakoa akordioaren aitzakian.

Politika adostasunak bilatzea ere bada, baina ez edonola. Akordioak onak izan daitezke, edo politikaren erabateko antitesia eta balioen ukatzea. Politika herritarrei proposamen bat egitea da, norabide bat ezartzea, eta botere publikoetatik herria norabide horretan eramaten ahalegintzea. Helburuei lotutako jardun ideologikoa da.

Akordioetara iristea kontu positibo gisa saltzen digute beti, baita zure ideoaren beste muturrean dagoenarekin bada ere. Alabaina, alderdien interesak eta bozka eman dieten herritarren interesak ez datoz beti bat. Akordioen oinarria ez da izaten programatikoa edo helburu jakin batzuen mendekoa. Xedea agintea eskuratzea edo mantentzea da. Gauzak horrela, urardotzaileetan urardotzaileena aterako da garaile. Margaret Thatcherrek honakoa zioen: "Kontsentsua sineste, printzipio, balio eta politika guztiak alde batera uztea da. Alegia, inork ez du horretan sinesten eta inork ez dio trabarik jartzen".

Legegintzaldi honetan EAJ eta PSE-EEren arteko akordioa batetik, eta, batez ere EAJ eta PPren artekoak izan dira hautsak gehien harrotu dituztenak. Baina kontua sinplea da, PPk EAJ behar du aurrekontuak aurrera ateratzeko, baina baita EAJk PP ere Eusko Jaurlaritzan. Erabaki hori aspaldi hartuta dago.



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

EAJri aitortu behar zaio saltzeko oso zaila dena salgarri egiteko eta, batik bat, komunikatzeko abilezia. Jakin baitakite Espainiako 78ko erregimenaren hedabideek –baita 78 aurrekoek ere– ez diotela egur berezirik emango Espainiako errailean doan artean, akordioak PSOE eta PPrekin egiten dituen artean. Esango nuke, ordea, gero eta zailago egiten zaiola posizio horri eustea

Hortik aurrerakoa makillajea eta itxurakeria da. Nola azaldu boto-emaileei printzipioz norbere balio eta interesen aurkakoa den hori babestea? Izanaren eta portaeraren arteko disonantzia hori nola justifikatu? Zer izan daiteke salgarria? Orain kupoa, orain inbertsioak, orain zerga-erreforma, orain pentsioak. Azken-azken unera arte negoziazioan dagoena salgarritasun hori da. Zer eman elkarri bere publikoari azalpenak emateko? Zergatik ez da esaten elkar behar dutela eta listo? Hori baita abiapuntua. Nik zu. Zuk ni.

EAJri aitortu behar zaio saltzeko oso zaila dena salgarri egiteko eta, batik bat, komunikatzeko abilezia. Euskal agenda eta euskal *adenda*. Jeltzaleentzat oso posizio erosoak izan da orain arte. Jakin baitakite Espainiako 78ko erregimenaren hedabideek –baita 78 aurrekoek ere– ez diotela egur berezirik emango Espainiako errailean doan artean, akordioak PSOE eta PPrekin egiten dituen artean. Esango nuke, ordea, gero eta zailago egiten zaiola posizio horri eustea.

Batetik, Espainiako Estatuan badelako alderdiek akordio –baita eskubide– guztien gainetik defendatuko duten zerbait: Espainiaren batasuna. Horretan ez dago negoziatzeko aukerarik. EAJrentzat ia ezinezkoa da dagoeneko PPri ematen dion babesaren justifikatzea. Errailetara arte ustelduta egoteaz gain, Espainia autoritario eta gupidagabearen ordezkaria da eta Katalunian egiten ari direnak ez du izenik. Nire irudiko, akordioa zuzitzeko asmotan pentsioen kontua baliatzea agerikoegi geratu da eta euskal jendartearen sektore zabala bat trikimailuaz jabetu da. Agian boto-emaileak horrelako gauzez konturatzeko hasi gara, edo agian ez. Edo egia izango da Winston Churchillek zioen hura, hau da, herri bakoitzak merezi dituen agintariak dituela. ■

Denok elkarrekin

Autoan harrapatu nau ekaitzak, eta horrek trakestu egin du irratiko konexioa; tunel, putzu eta zarata artean *-kshjsxkksh-* sartu da bozgorailuetatik *All together now kantua*, The Farm taldearena, ez Beatlesena. Joseina Etxeberriak kontatu duenez, bakearen aldeko aldarri bat izan omen zen bere garaian kantu hau –agian batzuentzat gauza oso jakina izango da, baina gu jaio eta urtebetera konposatu zen, barkatuko didazue–. 90. hamarkadako mundu mailako tentsio politikoaren erdian, I. Mundu Gerrako pasarte bat ekartzen du letrak gogora:

1914ko abenduaren 24an, Belgikako lurretan, soldadu alemaniarrek ordu batzuetarako armak utzi eta gabon gaua ospatzea erabaki omen zuten. Frantziar eta britainiarrentzat eraso egiteko une estrategikoa izan zitekeen arren, gauza bera egin zuten hauek ere: deskantsu hartu. Tirorik gabeko gau hura ezkutelekuak utzi eta kideen gorpuei lur emateko baliatu zuten soldaduek, eta euren herrietako gabon-kantak kantatu omen zituzten aurkariarekin batera.

Su-etenaren gau hari buruzko froga gutxi batzuk daude bakarrik, gerrako goi karguek honen berri ematen zuten argazki eta gutunak suntsitu zituztela esaten baita.



Nerea Ibarzabal

KAZETARIA

@ibarnere

Goitik behera datozen
batasun proposamenak
ez dira zapalkuntza
metodo bat besterik

Istorio ederra denik ezin ukatu. Ziur badela erreproduzio zerrenda bat Spotify-n denok elkartuta edozein arazori aurre egin diezaiokegula sinesten dugun minutu horietarako. *Imagine all the people living life in peace, uh uh...* gustatzen zaizkit, eta gaizki sentiarazten naute aldi berean, ez dakit zuri gertatzen ote zaizun. Norbaitek batasunaren kontzeptua zikindu didala ohartzen naiz horrelakoetan, ezin dudala hitz

hori entzun mesfidantzarik barik, zaratarik barik. *Kshjsxkksh*.

Izango da agian ekaitzak harrapatu nauen egunean bertan entzun dudala norbait esaten bakarrik espainiarrak ikusten dituela bere ingurura begiratzerakoan –eta irudikatu dut 3D zinemako antiojo batzuekin soinean, baina kristal hori eta gorriekin–. Desberdintasunik ez omen du ikusten, ezta desorekarik ere. Denok elkarrekin “zentrorantz”.

Gero badira desberdintasun horiek ikusi bai, baina postal polit batean kabiarazi nahi dituztenak lehengo marko zaharra krakatu gabe. Nire hizkuntza, Kanarietako patatentzako saltsa eta Madrilgo dantza tipikoa, esaterako. Denok elkarrekin ahal dugu.

Eta horrela, eskala ezberdinetan, ehunka ustezko ongile eta limurtzaile –“horrela abertzaleak banatzen dituzue”, “horrela ezkerria banatzen duzue”, “horrela feminismoa ahultzen duzue”– zeintzuen erruz *Batasuna* entzun eta uztarri bat edo alper-harri bat datozkidan burura, eta ez luke hala behar. Baina goitik behera datozen batasun proposamenak ez dira zapalkuntza metodo bat besterik.

Itzuli iezadazue batasunaren esanahia, oinarrien artekoa eta borondatezkoa zen hura. Itzuli, edo utzi birsortzen bestela. ■

Errenta 2017

Egin errenta aitorpena euskaraz

Aurreko urtetan Lezon euskaraz egin dutenen ehunekoak:

2015ean %17,8 / **2016ean** %18,7

Lezon natural



Lezoko Unibertsitateko Udala

Gaur egungo *ars amandi*-a: txortan egitea, alegia



Ana Mendia
EMAGIN EGOILIARRA

Lagun batek esan dit hobe dudala beste zer-baiten inguruan hausnartzea. Hobe dudala originala izan eta behingoagatik gauza politen inguruan idaztea. Akaso arrazoi du lagunak. Zinez diot saiatu naizela gomendioari jarraitzen; ezin, orde, tentazioari eutsi. Sentitzen dut, beraz, baina barruko amorrua askatzeko baino ez bada ere, orain hilabete batzuk kontsultan gertatutakoa kontatu beste erremediorik ez dut.

Mahaiaren beste aldean topatu nuen hamasei urteko neska urduritasuna azazkalak janez uxatu nahian. Ea zergatik zetorren galdetu eta ia arnasik hartu gabe bota zuen dena segidan: “Mutil-laguna-ekin txortan egiten saiatu naiz behin baino gehiagotan, baina ez zait sartzen. Mutilak ja, ja egin nahi duela esan dit eta nik ez dakit zergatik ezin dudan. Jakin nahi dut dena normala dudan edo”. Ezin asmatu nondik hasi. Ezin asmatu parean nituen esku urdurien eskaria irudi bezain agerikoa zen edo ez ote zen sexu-harreman koitalak izateko ezarpen sozialaren adibide; norbere gorputzaren normaltasuna zalantzan jartzerainoko zamaren adibide.

Sutu egiten naiz, segituan. Sutut egiten naiz koba ilun miragarri batez gain, emakumeok harreman afektibo-sexualetan plazer iturri den beste ezer ez dugula hitz-erdika esaten den bakoitzean. Edo sexua ezinbestean beste batek ase beharreko premia den aitzakian edonolako gehiegikeriak justifikatzen direnean. Sutut egiten

naiz harreman heterosexualen arrakasta gizonaren eia kulazioari erreparatuta neurtzen den bakoitzean. Edo arrakasta eza bikotearen trakekeriari egozten zaionean.

Benetan kezkarria da harreman heterosexual asegarria koitoaren pareko dela sinestea. Beharbada Freud-engana joan beharko genuke kontu eske; berak esan baitzuen klitoriaren estimulazio bidez lortzen den orgasmoa heldugabea dela baginaren estimulazio bidez lortzen denaren pare (lortzen bada, behintzat). Eta hala, zentzugabeko dikotomia faltsu horretan, klitoria haur-jolasetako garaia lotutako bigarren mailako organo gisa bazterrarazi dute zenbaitek. Horregatik egin behar dugu larrutan, pelikuletan bezala, ahal bezain pronto; heldutasunaren ikurrina lagunei harro-harro erakusteko.

Beldur naiz ustezko sexu esplizituaren mende honetan zentsura gehiegi ez ote dagoen inplizitu. Nire irudipena izango da, agian, ez dakit; baina, batzuetan, haragi biluzia erakustearen babesean egiazkotasuna ezkutuan geratzen den susmoa dut.

Eskerrak, hala ere, baden gehiegi sutzen naize-nean gogora ekartzen dudana lankide baten kontakizuna; hirurogeita hamar urte pasatxo zituen bikote bati harreman sexualik ote zuten galdetu eta bataren ezezkoari besteak haxe erantzun zionekoa: “Harremanik ez dugula? Ez al dizkiogu ba elkarri mimoak ematen?”. ■

Baliabide urriak



Edu Zelaieta Anta
IDAZLEA

Administrazio publikoan lanean ari diren hainbat laguni antzeko komentarioa aditu izan diet azkenaldi honetan: “Gure zerbitzuak gainezka daude”. Pentsatzekoa da egoera ez dela bera erakunde edota arlo guztietan; nola nahi ere, joera orokor samarra dirudi eta, krisiak utzitako orbain itxi gabeak tarteko, lanez lepo aritzea ohiko errealitate bihurtu zaie hainbat langile publikori. Gainera, kasu frankotan, langile horiek bitartekoak dira, interinoak.

Sindikatuaren lelo ezagunak prekarizitatea salatzen duen bitartean, langileon kulturak bestelako iruditegi batzuk sortzen ditu maiz. Hartara,

etsipena eta onarpena uztartzen dituzten esapi-deak geure egin ditugu, eta elkarri errepikatzen dizkiogu ia kontrol sozialaren izenean: “Haxe besterik ez dago”, “saiatu ahal duzuna egiten”, “ez kexatzea hobe”, “zertarako egin greba?”, “ez duzu ezertxo ere lortuko”, eta abar.

Neu ere mantra horien lozorroan nengoela, gizarte langile baten gogoetak ernatu ninduen kolpetik: “Ez dugu lan handiegirik, giza baliabide urriak baizik”. Izan ere, administrazio publikoak jendarte horri dagozkion lanak egin behar ditu berez. Arazoa, ohi bezala, politikan dago: ikuspegiaren eta kudeaketaren. ■

Bakezaleak gara eta

Maiatzaren 6ko ARGIA n, Pello Zubiria Kaminok biziki argiki azaldu du Europar Batasunaren aurrekontuetan nola nagusitu den armagintza. Zinez beldurgarri eta oldargarria da. Gaiak merezi du zabaldua izatea: eguneroko jokamolde eta solasaldietan nabari dira agresibitatea eta gerla egoeraren onarpena.

Batzuek sinesten dute gizakiaren bilakaera bake orokorrerantz aritzea dela, eta tartean euskaldun anitzok nahi gure herrian hasi den bake prozesua bururaino joan dadin. Baina bide horretan oztopoak eta dudak biderkatzen zaizkigu. Ikus ere Palestina eta Israelen arteko gatazka: nork sinesten du bakea inoiz lortu dezaketela? Ez ote du munduko gehiengoak onartua Ekialde Hurbila etengabeko gerla gunea dela? Eta nagusikiago gerla egitea dela gizakiaren zortea? Bakearen baitan printzipioz sinestea beharrezkoa da bizirauteko, baina gizarteak bortizkeria sakonki baimendua duela begi-bistakoa dut.


Klasean, ohartzen naiz nerabe gehienentzat normala dela mundua soldaduz eta armaz apaindurik irudikatzea; zenbaitzuek gaiztaginen torturatzea gorapaitzen dute beren idazlanetan, kontuan hartu gabe torturaren praktika debekatua dela, hedabide arruntek gisa hartako itxurapenak zabaltzen dituztelako, familietan hari horretatik doazelako solasaldiak, eta, oro har, bortizkeriaren hiztegia ohikoa bihurtua delako.

Baina harrigarriago ere bada: ikastetxe publikoetako zuzendari eta irakasleek hautu berria daukagu gure klaseetan geldirik ez dauden ikasleak egiazko larderiez hezteko, armadaren laguntzarekin. Alabaina, 2011z geroz, Frantziako Hezkunde Nazionalak eta armadak partaidetza bat izenpetu dute, eta interesatuak diren ikastetxeek (izan eskola, izan kolegio, izan lizeo) galdegi-



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

ten ahal dute ikasle nahasiek “defentsa, hiritartasuna eta seguritate klasea” osa dezaten. Klase berezi horietan, ikasleek harreman hertsia daukate armadako sail batekin: trukaketa elektronikoak badituzte urte guztian, ofizialak heldu dira klasera, ikasleek itsaspeko nuklearrak edo trebaketa gunek bisita ditzakete, eta berek ere, joko bidez, bizitzen ahal dute krisizko interbentzioa. Abantaila omen da irakasleentzat bakea kasik segurtatua dutela ondotik klasean delako ikasle baratzegaitzekin, eta ikasleentzat arauak azkenean errespetatzen ikasten dutela. Bere aldetik, armadak, gerorako errekrutamendua prestatzeaz gain, itxura baikorra hedatu nahi du gizartean gisa horretako dispositiboei esker –funstean, iazko kolegioetako brebetean, ez ote zitzairen galdegiten 15 urteko gaztetxoek armadaren goresmenaz egitea idazlana?-. Gainera, irakasle eskoletan ere abiatuak dira irakasleendako formakuntza bereziak, armada hobeki ezagutu dezaten, eta hobeki goraipa dezaten ondotik klaseetan... Nekezian dauden haurrak idazketa tailer, antzerki, esku-lan, musika edo onginahizko protokoloen bidez laguntzea bakezale idealisten ameskeria zaharkitua baizik ez balitz bezala.

Arazoen konpontzeko erantzun militarra arrunta bihurtzen den garai honetan, nehoiz baino beharrezkoak bihurtu dira ulermen eta gogo hazkurri gunek: gertatzen denaren interpretatzen lagunduko gaituzten argibide medioek, gizartea eraldatzeko xedea daukaten hainbat hedabide edo elkarteek eskaintzen dituztenak, zernahi zailtasun gainditurik. Oroz gainetik, solastokien beharra dugu, jakin dezagun globalki eta tokika gizartean indarrean dauden mitologiak ezagutzen, deseraikitzen, gureganatzen edo baztertzen, betiere jendetasuna xede, hondamendi orokorra gerta ez dadin. ■

EKAINAK

9

22:30

PAGOA

kafe antzokia

OIARTZUN

SARRERAK

A: 10€

T: 12€

OIARTZUN

ELORSORO

PAGOA

DONOSTIA

DONOSTI ROCK

ERRETERIA

ARKAITZA TABERNA

ONLINE

TICKETEA

COLECTIVA

MAUKA

KUTXABANK

EH SUKARRA DEUS EZ INDIDXABAK MIL DEMONIOS



berria

ARGIA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



PAGOA®
EUSKAL HERRI BERRIKO ARTISAU GARAGARDOA

WWW.PAGOA.EUS • PAGOALDEA 7, 20180 OIARTZUN • TEL. 619 421 153



"There is no alternative"

IRUÑEA, ALTERNATIBEN HERRIA

Bai Margaret, posible da



Xabier Letona
@xletona

Klimaren hondamendia, hori da seguruenik gaur egungo krisi globalaren ondorio ikusgarriena. Donald Trumpen etorrerak brintzak sortu dituen arren, horren inguruko kontsentsua handia da: gure planetak sendabideak behar ditu. Euskal Herrian Baionan egin zen asmo horren aldeko lehen ekimen sozial masiboa 2013an: Alternatiben Herria. Bilbon errepikatu zen esperientzia 2015ean eta datorren ekainaren 2an Nafarroaren txanda izango da, Iruñean. Urrian, Bizi!-ren eskutik, Iparraldean errepikatuko da esperientzia.

Alternatiben Herrian bizi direnentzat, oster, klimaren hondamendia sintoma bat besterik ez da, eta horren kontra egin behar da, baina garrantzitsuena egoera hori ekarri duena da: sistema kapitalista. Herri honetako herritarrek dagoeneko argi dute ez dela nahiko kapitalismoaren aurka egitea, gero eta sustraituago dute apurka alternatibak eraiki behar direla. Horretan datza Alternatiben Herriaren eguna: alternatibak nahi eta buruan dituzten guztiek euren esperientziak eta ideiak erakutsi eta elkar trukatzean. Ikasi, hausnartu, ahalmenu, saretu eta gozatu. Horra egunaren klabe nagusiak.

Trantsizio hotsak

Feudalismoetik kapitalismoraino bidaia ia bi mendekoa izan zen. Autore batzuentzat, Paul Mason kazetari britainiarra esaterako, poskapitalismoan gaurde jada eta egungo sistemaren zutoinak arrakalaz beteak dira. Bere esanetan, trantsizioa hasia da. Batek daki, baina ekainaren 2an Iruñean bilduko direnak ez dira trantsizio horren emaitzen zain geratuko, trantsizioa gaurdanik ari dira lantzen gizarteko alor guztietan.

1999an AEBetako Seatlen globalizazio kapitalistaren aurka hasitako protestak, 2001ean loratu ziren Brasilen: Porto Alegrek "Beste mundu bat posible

da” egin zion oihu neoliberalismoari. XXI. mende hasierako metxa hark piztuta jarraitzen du Euskal Herriko herri mugimenduaren abaraskan, gero eta anitzago, gero eta sakonago, gero eta eraldatzaileago.

“*There is not alternative*” (ez dago alternatibarik”) barreiatu zuen Margaret Thatcher mandatarari neoliberal britainiarrak lau haizetara. “Bai, bada, beste mundu bat posible da eta baditugu alternatibak”, erantzun diote Iruñerriatik 50 herri mugimendu, elkarte, enpresa eta sindikatuk. Baionako 2013ko saioa ELAren Fundazio Manu Robles-Arangiz Institutuari lotutako Bizi! mugimenduak antolatu zuen. Bilbokoa eta Iruñeko Alternatiben Herria, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak bideratu ditu. Sei auzo, herri berri baterako.

Eguna Iruñeko Alde Zaharrean ospatuko bada ere, alternatiben esparruak Nafarroa osoa erakutsi nahi du. Baina ez da erraza, Iruñerrian bizi da lurraldearen erdia baino gehiago eta hori agerian da herri mugimenduen baitan ere. Sei auzo tematikotan banatzen dute beren jarduerak Alternatiben Herrian: Arragoa (kultura, hizkuntza...); AuzoEKOonomia; Bizi anitzak eta duinak; Burujabetza; Haurren Errepublikak; eta, Herriak eta Lurra.

Azken auzo honetakoa da, esaterako, Euskal Herriko lehen udal komertzializatzaile elektrikoa eratu duen subjektua: Izabako udala. Pirinioetan txango txiki bat eman besterik ez dago ikusteko zenbat zentral hidroelektriko dagoen, baina gehienak enpresa handien esku daude. Nafarroan, zentral horietako hiru daude udalen eskuetan, bat Izabakoa da. Herri honek 60ko hamarkadatik kontrolatzen du indar elektrikoaren produkzioa, gero banaketa ere bereganatu zuen eta duela gutxi merkaturatzea ere bere esku hartu du, Ezka Ibaia Energia SL enpresa publikoa medio. Urrats eredu-garria, kontuan hartuta azken hamarkadetan udalek oinarritzko zerbitzu ugari pribatizatu dituztela. Orain, oztopo handien artean bada ere, udal gutxi batzuk berriz hasi dira publiko egiten zerbitzu horietako hainbat.

Ari gara

Energia Gara eta Goiener dira argi indarraren esparruan azken urteetan sortu diren esparru kooperatibo indartsuenak. Ekonomia sozial eralda-

tzaileak zulatu gabe zuen telefoniarren eremuan ere ernetu da alternatiba: Izarkom. 2014an, halaber, Lasotan Iniziatiba Sozialeko kooperatiba sortu zen, hezkuntzaren munduan elkarbizitzaren laborategia eratzeke helburuarekin. Euskoa tokiko moneta ere bere bidea finkatzen ari da Ipar Euskal Herrian, eta dagoeneko 3.000 pertsona edo entitatek erabiltzen dute diru gisa: aberastasun hori multzo horren baitan kudeatzen dute, haien arteko eragiketarak ordaintzeko, eta euskoak ez doaz beste inoren patrikara edo Europako Banku Zentralera, honek, adibidez, bankuei %0ko interesean eman die-



LURRA ETA EKONOMIA LOKALAREKIKO KONPROMISOEN DEKALOGOA

(NAFARROAKO PEÑA ETA
ELKARTEEI PROPOSATUTAKOA)

1. Gure lokaletako energia, irabazi asmorik gabeko kooperatibek merkaturatutakoa izan dadin ahaleginduko gara, garbi sortutakoa eta berriztagarria.
2. Kontsumitzen dugun olioak gertuko errotetakoa izango da.
3. Ardoa ere gertukoa izango da.
4. Kafea merkataritza justuko kooperatibetakoa izango da.
5. Esnea ere gertukoa izango da.
6. Botilako uraren ontziek ingurumen arazo handiak sortzen dituzte, beraz, sare publikoko ura edango dugu.
7. Hondakinak sailka jasoko ditugu, behar den eraginkortasunez.
8. Hornitzen gaituzten enpresei ontzi berrerabilgarriak eskatuko dizkiegu.
9. Erabili eta bota gisako ontziei (edalonziak, platerak...) uko egingo diegu.
10. Finantza harremanak banku etikoekin izaten saiatuko gara.

zaien eta hauek guri %8an. Inork ez du Euskoarekin espekulatzeke asmorik, aberasteko xederik. Beste adibide bat? Itsulapikoa, euskal crowdfundingeko plataforma gazteak ere bere bidearekin jarraitzen du.

Kontsumo taldeak ere hor dira, eta bertako produktoreak –gertukoak eta ekologikoak– (EHKOlektiboan adibidez), Piparrika moduko herri baratzeak, Guneko Oilategia, Bilgune feminista, Kattalingorri, Mendillorriko Antzara auzo elkarte, Emausko Trapuketarien Hemen Konpon ekimena, OlatuKoop, Koop57... Oilategi bizi honetan, dozenaka dira han-hemenka bestelako arrautzak errun dituztenak, eta beste ugari sortu berri edota herritarren asmoetan dira.

Kolpez kolpe azaleratuta, sexu eraso izeberga gero eta ageriago dago emakume antolatuen eskutik; Martxoaren 8ak zirrara berezia eragin zuen Alternatibaren Herriko herritarren bizkar-hezuraren. Eta antzeko sentipena ainguratzen da gure barrenean dozenaka mila pentsiodunek herri honetako plaza eta etorbideak hartzen dituztenean. Gizartearen periferian ei ziren gehiengo handiak erdigunera datoz berau hartzeko asmoz. Chrysallis elkarteak egindako lanari esker, herritarrak hobeto ezagutzen du haur transexualen latza. LGTBI mugimenduak inoiz ez bezalako ikusgarritasuna lortu du Nafarroan eta bapo arduratzen da ondo erakustez... Richter eskala sozialean indar desberdineko lurrikarak dira, baina behin eta berriz ari dira astintzen egungo status quoaren zutoinak.

Horiek eta beste hamaika esparru ere jorratuko dira Iruñeko Alternatiben herrian. Irauli nahi dute egungo egoera. Iraultza? Izan liteke, baina honek ez du zerikusirik duela mende bateko sobieten errebolturekin. Sasoi bakoitzak berea du eta egungoa ez da langilerian oinarritzen, ehunka borroka eta alianztetan baino. Horrek, baina, baditu bere arazoak: nola demontre eraikitzen da alternatiba orokor eta zehatza bakoitza bereari begira bada, eta bakoitzarentzat bere borroka bada garrantzitsuenak? Egon daitezke erantzun asko, baina bat Marina Garcés filosofo kataluniarrak utzi berri digu apirileko LARRUNeko tituluan: “Borroka konkretu bakoitzean guztia dago jokoan”.



Gune zentrala: Takonera

11:30-13:00 Mahai-ingurua: "Burujabetza: pluralen eraikitzen". Mireia Foradada. Gotzone Sestorain, Amaia Oleaga eta Euskal Gune Ekosozialistako kide bat. Moderatzailea: Andoni Olariaga.
14:00-15:30 Bazkaria. 15€ (10€, ezin baduzu).
20:30-01:00 Kontzertuak.

Arragoa: San Frantzisko plaza

Kulturan, hizkuntza, hezkuntza eta herri izaera

10:30-12:00 Eskolako aretoa. Hitzaldia: Ane Ablanedo "Zer kendu behar zaio eskolari?".
10:30-12:00 Plaza. Mintzodromoa AEK-k antolatuta.
12:00-13:30 Eskolako kiroldegian. Tailerra. "Indarkeriarik gabeko komunikazioa". Anhai Sarasola.
12:00-13:30 Eskolako aretoa. Hitzaldia: Amelia Barkin/Aitor Idigoras "Segregazioa eskolan".
12:30 Plaza. Topaketa: Euskal Herria Kantuz. Kantak eta dantzak.
16:30-18:30 Labrit Tours. Labritetik Ibilaldia beste Iruñea bat ezagutzeko (16:30 eta 17:30, tiketak goizean banatuko dira).
18:30-19:30 Plaza. Martinbertso. Haurrei begirako bertso antzerki saioa.

AuzoEKOnomia:

Autobus geldoki zaharra

10:30-11:00 Bertso gosaria. Sus-trai Colina.
11:00-12:00 Aurkezpen kreatiboak: Gu geu gara alternatiba, Itsulapikoa, Gure Sustraiak eta Izarkom.

12:00-14:00 Hitzaldi-debatea: Alternatibak kapitalismoari. Maria Pazos, Mariu Ruiz Galvez, Alex Arizcun eta Joxerra Senarrek gidatua.

16:00-17:00 Aurkezpen kreatiboak: Olatukoop, Peñascal, Koopfabrika eta Microfides.

Bizi anitzak eta duinak: Nabarrerria

Bizi esperientziak ugariak direla erakutsiko dute auzo honetan

10:30-12:00 Maravillas gaztetxea. Mahaingurua "Kartzela, Atzeritarren zentroak, zigorra: alternatibak badaude". Ekhi Eizagirre, Yolanda Yañez, Paz Francés, Beatriz Villahizan.
12:00-14:00 Zabaldu. "Bazterretatik alternatibak eraikiz: aliantzak, aniztasuna, gorputzen arteko elkarguneak". Sarrera Itziar Gandarias. Mahaingurua: Mounira Moustari, Iris Dominguez, Sofia de Esteban.
17:00-19:00 Artxibotik. Kalejira feminista.

Santa Ana plaza

Egun osoa. Erakusketak: Kontsumo taldeen Nafarroako mapa. Egungo ingurugiro gatazken Nafarroako mapa. Pasa diren ingurugiro gatazken mapa eta Nafarroako AHT. Piparrika herri baratza
16:00-17:30 Kafe kalaka. Nafarroako Hiri Baratzteen topaketak.
17:30-19:00 Antzerkia. "Itoitz. Urpeko ipuinak", Amaia Elizagoien & Olaia Inziarte.

Burujabetza: Errekoleta plaza

Parte-hartzea, demokrazia, burujabetza.

10:30-12:00 Errekoletak plazan hasiera eta Alde Zaharrean barna. Bisita gidatua: Kapitalismoaren aztarnak Iruñean. Mónica Vargas eta Juan Hernandez "Tribunal de los Pueblos"-eko kideekin.
12:30-14:00 Errekoletak. Hitzaldia. Zergatik eta zertarako behar dugu Burujabetza? Garbiñe Aranburu, Xabier Anza, Saioa Iraola eta Ainhoa Intxaurrendieta. Gidaria: Irati Jimenez.
16:00-18:00 Errekoletak. Mahai-ingurua: Bost errezetak Burujabetza prozesu baterako. Rita Bruguera (Herrialde Katalanak) Endavant-eko kidea, Sabino Cuadra (EH), Lur Albizu (EH), Alexey Albu (Ukrania-Donbass), Borotba antolakundeko kidea eta Ben Wray (Eskozia). Commonsplaceko kidea. Dinamizatzailea: Ekhiñe Atorrasagastil.

Haurren Errepublikak: O plaza

Hiru gune izango dira: bat, eraikuntza eta jolas librerako gunea; bi, adierazpen librerako gunea, mikro irekiarekin; hiru, adierazpen librerako gunea horma-irudia egiteko.

Herriak eta lurra

Kondestable

10:30-12:00 Hitzaldia. Garraio azpiegiturak Espainiako Estatuan. Paco Segura.
10:30-12:00 Mahai-ingurua. Trantsizio Energetikoa Euskal Herrian: Esperientzia herritarrak. Sustrai, Bizi, Goiener eta Tradener.

» Helbide honetan ikus daiteke egitarau osoa: <http://alternatibenherria.eus/aurkezpena-egitaraua>

Gizateriaren handitasuna

Katakrak 2013ko hondarrean Iruñeko Kale Nagusiak irekitako liburutegia ederra da. Eta hori baino askoz gehiago ere bai, besteak beste, Iruñeko lurrikara honen epizentroa. Handik ari da Maitane Unzu gaztea koordinazio lanetan azken bederatzia hilabeteetan, sei auzoen batzarra koordinatu eta amaraun konplexu hau ehuntzen. 30.000-40.000 euroko aurrekontua dute Alternatiben Herria eraiki eta kapitalismoari kilimak egiteko. Koop57-ko finantza kooperatibaren mailegua dute horretarako, Itsulapikoko diru bilketa eta era guztietako ekarpen eta salmentak ere bai.

» Isabako udalak 60ko hamarkadatik kontrolatzen du indar elektrikoaren produkzioa, gero banaketa ere bereganatu zuen eta duela gutxi merkaturatzea ere bere esku hartu du, Ezka Ibaia Energia SL enpresa publikoa medio

Eta hala ere, neoliberalismoaren urrats gupidagabe eta tinkoen aurrean, egongo da pentsatzen duenik, arrazoi osoz gainera, ea kilima hauek guztiek zertarako balioko duten. Alternatiben Herriaren hitzaldi, mahai-inguru eta eztabaidetan izango da erantzun ugari galdera horretarako, zalantzarik gabe. Horietako bat izan daiteke alternatibarekin amesten zuen Hannah Arendt XX. mendeko filosofo handienetakoak utzitakoa: "Duintasunarekin, konstantziarekin eta ausardia apur batekin, mendeetan barrera horiekin eraiki da gizateriaren handitasuna".

JARDUERAK ETA GUNE TEMATIKOAK

IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN



Jarduera
tokiak

- 1 Erraldien Txokoa
- 2 Katakarak liburuak
- 3 San Frantzisko eskola
- 4 Liburutegia
- 5 Plazara
- 6 Kondestable
- 7 Auzoenea
- 8 Maravillas Gaztetxea
- 9 Zabaldi

AUZOAK
Gune
tematikoak

- Gune zentrala
- Arragoa
- AuzoEKOonomia
- Bizi anitzak eta duinak
- Burujabetza
- Haurren errepublikas
- Herriak eta Lurra

ERAGILEAK

Berriztu!
 SETEM Navarra Nafarroa
 EUSKAL GUNE EKOSOZIALISTA
 Manu Robles-Arangiz Institutua
 Errotxapeako gaztetxea
 Nortlan, correduría ética y solidaria
 REAS Nafarroa
 Acción Clima (Iruñea)
 Plataforma Social de Tafalla-Gizarte Asanblada
 Lantxurda Taldea
 Gernikako Ekologi Lan-taldea
 TxBizi
 Karmela
 Tafallaldeko LAB
 Oikocredit Euskadi
 Etzalde Nekazaritza Iraunkorra
 Bizkaiko Urtxintxa Eskola
 Uztaldi Bio-k
 Izarkom EHko Telek. Oper. Kooperatiboa
 Bostok Photo
 Martes al Sol
 Parlamentu Soziala
 EHKOLEktiboa
 EHNE Nafarroa
 Mugarik Gabe Nafarroa
 SARE elkarte
 Mundubat Fundazioa
 Piparrika baratzea
 Basetxe Gaztetxea
 ELA sindikatua
 Bilgune feminista
 Sustrai Erakuntza Fundazioa
 Meiorana Elkarte
 Steilas
 Emun Koop. E.
 Ernai
 Ekologistak Martxan Iruña
 Tomate Gorriak kontsumo taldea
 Sortzen Elkarte
 LAB Sindikatua



Eskuernaga (Arabar Errioxa)
 Tel.: + 34 945 623 355 / 685 738 193
www.candidobesa.com



Amaia Zufia

“Beste mundu bat eraiki dezakegula ideologikoki sinestea giltzarri da”



Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako ordezkarria da. Iruñean jaio zen eta 28 urte bete berri ditu Zufiak. Bilgune feministako kide da eta, hortik egin du jauzi Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartara eta Alternatiben Herrira. Azken honek, baietzari indarra emateko, alternatibak erakusteko eta ezagutzak josteko balio behar duela diosku.

Baionan egin zen lehen Alternatiben Herria 2013an, bigarrena Bilbon 2015ean. Zein balorazio egiten duzue egindako ibilbideaz?

Oso balorazio positiboa. Hasieran oso zentratua egon zen klima aldaketan, baina gero eta ikuspegi integralagoa hartu zuen eta, herri gisa behar ditugun alternatibez eta prozesuez hitz egitera pasatu gara. Indarrak metatzeko aukera eman digu txiki eta handiei. Mugimendu sozio-sindikala konturatu da indar handia ari dela xahutzen sistemari ezetz esaten greba orokor eta bestelako dinamiken bidez: “murrizketei ez”, “kapitalismoari ez”, “lan baldintza hauei ez”... Baiezkoa gutxiago landu izan dugu eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartari hori jorratzera etorri zen. Alternatiben Herria da horren adierazle nagusia. Egun zehatz horretatik egunerokora jauzi egitea da gure erronka.

Eta nola dago osasunez kapitalismoari alternatiba jarri nahi dion esparru zabal hori?

Sisteman honen aldetik egunero jaso-

tzen dugun bonbardaketa handia da. Horren aurrean etsipen handia dago, eta horregatik, beste mundu bat eraiki dezakegula ideologikoki sinestea giltzarri da. Alternatibak guk uste duguna baino gertuago ditugu sarri. Txikitik alternatiba asko eraikitzen ari dira: energiaren munduan, elikaduran, teknologian, gorputz aniztasunean... Gure hutsunea da alternatiba horiek guztiak oso sakabanatuta ditugula.

Asko daude, eta gainera, normala denez, bakoitzarentzat berea da garrantzitsuenak. Horrek askotan zaildu egiten du alternatiba orokorretan pentsatzea.

Bakoitza beretik, baina orokorrean pentsatuz aritzea lortu beharko genuke, bakoitzaren alea marko komun batean jarritz. Horregatik elkar ezagutzea eta elkar saretzea gakoa da.

Nafarroan banaketa politiko handia da gizartean (naziotasuna, hizkuntza...), eta esparru sozialean ere islatzen da hori neurri batean. Alternatiben herriak lortzen al du bi esparru horietako polo sozialenak hurbiltzea?

Nahiko genuke. Azkenean gure aldarrikapena zera da: eskubide sozial guztiak herritar guztientzat, eta hori gehien-go sozial osoaren interesekoa da. “Bizitza burujabea eskubide osoz” da gure goiburua, eta hor sartzen dira baita ere eskubide kultural eta linguistikoak, euskararen defentsa. Baina jatorri eta desberdinen arteko aniztasuna eta el-

» “Bakoitza beretik, baina orokorrean pentsatuz aritzea lortu beharko genuke”

kar ezagutza asko baloratzen dugu; beraz, esparru zabal batera iristeko balio beharko luke Alternatiben Herriak.

Egun zehatz bati begira sare asko josten dira. Gero mantentzen dira?

Kasu batzuetan bai. Bilbokoaren ondoren, naturaren auzoak lortu du saretzea eta orain, esaterako, Ziordian (Nafarroa) topaketak egin berri dituzte aurrera begirako lan ildo eta estrategiak pentsatzeko. Martxoaren 8ko mobilizazioak, pentsiodunenak... esparru batzuetan gizartea bizi-bizi dago gainera. Azken finean, gero eta kezka handiagoa dugu egungo bizi ereduarekiko, ardura sentitzen dugu gure praktika indibidual zein kolektiboak aldatzeko, eta kosta egiten da, baina badakigu egin behar dugula.

Eraldaketa beharra oso zabalduta dago gizartean: hobeto bizitzeko, lan baldintza duinak izateko, natura suntsitzeari uzteko, zahartzaro duina izateko, emakume gisa aske ibili ahal izateko... Eta gune askotatik, eta Alternatiben Herriatik ere bai, lortzen ari gara hori guztia ikuspegi anitzeko burujabetzarekin lotzea. ■

Lorea Muguruza [baserritarra]



Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
@eagirrebeng

“Baserritarrentzat gogorra litzateke Eraikinen Ikuskaritza Teknikoei aurre egin behar izatea”

Lorea Muguruza dut izena, 35 urte ditut, eta Idiazabalgo baserri batean bizi naiz. Lan ere bertan egiten dut, nekazari moduan. Beste baserritar askori bezala, kezka eragiten dit Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila onartzearen den Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaren (EIT) dekretu berriak. Baserriak ez dira bizileku hutsak, beste hainbat funtzio ere badituzte, eta trataera ezberdina eman beharko litzaieke herri eta hirietako etxebizitzaren aldean. Hau da, gure eraikinek ez lukete EITrik pasa beharko.



Etxebizitza legean aipatzen denez, nagusiki bizitokiak diren 50 urtez gorako eraikin guztietan egin behar da EIT ikuskaritza teknikoak. Baina zer da nagusiki? Legeak ez du zehazten zertan oinarritzen den eraikin bat gehienbat bizilekua dela esateko. Lurzoruaren kalifikazioari edota eraikinaren erabilera-ri errepara diezaioke, baina ez du ezer jartzen. Nire kasuan, %25 da bakarrik etxebizitza bezala dagoena. Gainerako %75ak bestelako erabilera bat du: hor daude belarraren eta makinaren biltegiak, animaliak bereizteko erabiltzen dugun eremua...

Kaleko etxe batean, garbi dago, hirugarrengoa arriskuan jar daitezke. Uler-tzen dut halako kasuetan inspektzioak beharrezkoak izatea. Baina baserrien kasua oso desberdina da. Nire kasuan, ondoan dudana bidea nire da, ez dago bide publiko baten ondoan. Eta baserria lantoki eta bizileku den heinean, eraikinaren egoerak niri axola dit gehien. Gainera niri eroriko litzaidake. Hirugarren-ga bat kaltetzeko ez dago ia aukerarik.

Auziak beste osagai sozial gogor bat ere badauka. Hiri edo herri batean, ha-

mabost etxebizitza badaude eraikin be-rean, faktura denen artean ordainduko dute. Baserri askotan, ordea, familia ba-karrak egin behar dio aurre gastuari. Eta ez dira 2 euro. Metro karratuen bai-takoa izaten da prezioa, eta baserriak ez dira txikiak preseski. Nik kalkulerik ez dut egin nahi ere izan. Jendea oso kez-katurik dago. Gai hau lantzen urtebete baino gehiago daramagu EHNE sindika-tuan, eta orain eztanda egitear da. Egoe-ra jasangaitz bihur daiteke.

Halakoek ez diote batere laguntzen baserrien iraupenari eta transmisioa-ri. Demagun gurasoak hil ostean, seni-de batzuen esku gelditu dela baserria. Egoera txarrean badago, eta dirurik ez badute, nork egingo dio aurre? Hor eten egingo litzateke jarraipena. Edo dema-gun, pertsona nagusiak bizi direla ber-tan, eta baserritar izan ostean, pentsio barregarriarekin gelditu direla. 1.000 euro ordaintzeko eskatuko al diezu? Egoera larria da. Egia esan, baserritar guztiontzat litzateke gogorra EITei au-rre egin behar izatea.

Guk eskatzen dugu EITak zoruaren arabera egin daitezela. Alegia, zorua

urbanizaezina den momentutik, bal-dintza berezi batzuk bete behar ditu-gu, eta EITetatik salbuetsi egon behar-ko ginateke. Ondoan bide publiko bat badago, edo bi etxebizitzako baserri bat bada, kaltea eragin diezaioket beste norbaiti. Bada, kasu horietan, akordioa lortu beharko da. Baina hitz eginda konpon daiteke. Guk ez dugu formula miragarriarik, baina garbi ikusten dugu salbuetsi egin behar di-rela urbanizaezina den eremuan dau-den baserriak.

Dekretua atera aurretik, ganoraz-ko lanketa egin nahi dugu administra-zioarekin. Ateak jo eta jo ari gara. El-karlanerako behar gorria ikusten dugu. Jaurlaritzarekin bilera bat izan dugu, eta haiek pilota udalen teilatuan ipini dute. Udalek, ordea, ez dakite zer egin. Legea beste modu batera idatzi daiteke, zehaztasun gehiagor, eta salbuespenak eginez. Hor dago Kataluniaren kasua (EITen gaineko 67/2015 dekretuaren aplikaziotik at geratzen dira, adibidez, bide publikoa gutxienez 1,5 metrora du-ten eraikinak). Ez da egin ezin daitekeen zerbait. ■

BIZITZA DA HANDIENA

Herri boteretik
“Euskal Erregimena”
borrokatuz





Maiatzaren 19tik 27ra *Bizitza Da Handiena* kanpaina gauzatu dute Donostian. 63 herri mugimenduk eta sindikatuk “borroka sozialen astearekin” bat egin dute, eta “herritarren kapitala” aldarrikatu dute. Lubaki desberdinek fronte bakarra osatu dute. Ozenen entzun den oihua turistifikazioaren aurkakoa izan da, izan ere, Turismoaren Mundu Erakundeak goi-bilera hirian egin behar zuen egunekin bat egin du mugimendu desobedienteak.



Maddi Txintxurreta Agirregabiria

@mtxintxurreta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Kalean gauzak aldatzeko grina apaldu dela, maiztu dela borrokarako adorea, lausotu begirada kritikoa. Ez omen da oraingo Donostia lehengoa bezalakoa, zapalduak ez dutela sumatzen zapaltzailearen bota garondoan iltzatuta. Azken aste honetan erakutsi dute existitzen dela herritar hezikaitz mordoak, borroka ugariren baturaren plaza. Postal turistikoetako Donostia idilikoaren atzean dagoena azaleratu da. Txikitik, baliabide gutxiarekin, *Bizitza Da Handiena* kanpaina bestelako hiri bat proiektatzen saiatu da, pentsaera eta borroka desberdinen baturatik eta ahalduntzetik. Mezua sinplea baina garbia izan da: “Ez gaude ados”.

Bizitza Da Handiena dinamikari 63 eragilek adierazi diote atxikimendua, batzuk proiektua politikoki babestuz eta beste batzuk borroka sozialen guriari tiraka; antolatuz, eztabaidatuz eta ospatuz. 63 eragilek bat egitea ez zen erronka erraza. Azken asanbladan kide baterano batek adierazi zuenez, Gipuzkoako hiriburuan halako zerbait sortzeko saiakera ugari egin dira azken 30 urteetan, eta hau da gorpuztu den bakanetakoa. “Hau erreala da, behetik gora sortu da eta hemen gaude”, adierazi du. Orain arte bakoitzak bere lubakitik egin du erresistentzia, baina bazuten susmoa indarrak batu zitezkeela. Etsai komunari “euskal erregimena” deitu diote: Herritarren plazetatik urrunduta bulego

hotzetatik aldebakartasunez erabakiak hartzen dituzten horiek; Donostian metro-pasantea eta Zubietan erraustegia eraiki nahi dituztenak, etxebizitzaren alokairuak garestituz gazteen emantzipazioa ezinezko bihurtzen duena, hirian hotel gehiago ireki nahi dituztenak, Turismoaren Mundu Erakundeari alfonbra gorria jarri diotenak, pentsioak behar beste igotzen ez dituen gobernuarekin aurrekontuak onartu dituztenak, hedabideetatik protesta soziala zentsuratzaren dutenak... Baina, etsai komuna bainoago, gizartearen eraldaketarako grina partekatu dute eragileek. Abiapuntua berbera: erresistentzia, desobedientzia zibilean eta kolaborazio ezan oinarritutako borroka ez-biolentoa, eta bizitza erdigunean jartzea.

Helburu horrekin sortu da “borroka sozialen astea”. Astebate ekitaldiz, hitzaldiz, musikaz eta ekimen desobedientez lepo. Aste parekide eta parte-hartzaileak, herri boterearen ber-haste eta hazte bat. Ahalduntze kolektibo bat.

Eraikinaren lehen sorpresa

Kalejira batekin abiatu zen dena, Bulebarrean maiatzaren 19 goizean. 300 pertsona inguru abiatu ziren trikitilarietara segika, moztortuta eta alai. *Bizitza Da Handienak* bizipoza ekartzeko eskatu zuen, eta etxeko lanak eginda agertu ziren Donostiako postalaren markotik kanpo bizi direnak. Gutxiak espero zuten gertatu zen gero: Idiakez kaleko seigarrenera iritsi eta 2002tik lehenengoz ireki zituzten zortzi solairuko bloke baten ateak. Ertzainez beteriko Gipuzkoa Plazaren ondoan, herritarrek sorpresa eman zuten: Okupazio batekin hasi da borroka sozialen astea.

Hautseztatuta zegoen eraikina, utzita. Aulki zaharrak, zuzenbideko liburu mardulak eta epaiketa gela abandonatuak. Espainiako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrena da eraikina, baina urte luzez amaraunak zintzilik izan ditu, hiriko erdigunean utzikieriak janda, 2002an hustu eta 2009ko irailaren 29an ia 10 milioi euroko prezioan enkantera atera zenetik. Harik eta *Bizitza Da Handiena* dinamikak biziberritu duen arte.

“Herritarren Etxea”: Zaintza eta borroka

Goitik behera garbitu dute eraikina, auzolanean dena. Argia jarri, garbiketara-

ko ura solairuetan dauden mahuketatik baliatu eta edangarria Bretxako iturritik hartu, eragileen karteekin paretak atondu, zortzigarren pisutik behearaino fatxadan pankarta erraldoi bat jarrita kalea aldarrikatu eta atarian bi joaldun astebetez herri boterearen zaindaria gisara finkatu.

Eraikina okupatu berritan egindako prentsaurrekoan lau haizetara zabaldutuz: Azken urte eta erdian Donostian legez kanpoko huste ugari egin dituzte Udaltzaingoa eta Ertzaintzak. Prentsaurrean argitu zutenenez, legeak dioenez, eraikin publikoan sartuz gero, administrazioak hamar eguneko epea eman behar duela husteko. *Bizitza Da Handiena* astebeteko ekimena zen, zortzi gau eman ditu “Herritarren Etxean”. Ertzaintza eta udaltzaingoa aldezkatu bitartek izan dituzten arren, ez dituzte kaleratu. Agian izango zuen pisurik agintariei abisatu izana kaleratuz gero plazetara mugituko zutela kanpaldia. “Bazen garaia norbaitek zerbait egiteko eraikin honekin”, adierazi du okupazioa gertatu bitartean bertatik igaro den agure batek.

Bertan izan dira Ira, Haizea, Bittor, Lur eta Ilargi. Ez dira orriotara testigantzak ekarri dituztenen egiazko izenak, baina aste osoa ibili dira kanpaina antolatzen eta eraikinean bizitzen. Ekintzaz betetako astearen bukaeran tarte bat hartu dute ARGIArekin hitz egiteko.

Okupazioa baino, “garrantzitsuena kalean gertatu dena” dela iritziz du Lurrek. Alabaina, zaintza eta elkarbizitza “etxean” sortu direla nabarmendu dute guztiek. “Ideologia ugaritako pertsonak batu gara hemen eta aurrera eramanez guztia, inolako haserrikerik gabe”, esan du Bittorrekin. Ilargik hari berberari eutsi dio: “Elkartu gara pertsona batzuk agian espazio hau existitu ez balitz ez ginenak sekula ezagutuko”.

Pertsona ugari egin dute bizitza bloke okupatuan. Bertan otordu herrikoia prestatu dituzte borondatearen truke, garbiketa txandak egin; zaintzarik gabe gauza-ezina baita borroka. Haizeak horixe azpimarratu du: “Gustatu zait otordu guztiak beganoak izatea, eta hori zalantzan ez jartzea. Zalantzan ez jartzea espazio ez misto bat egon behar dela, baita sukalde eta garbiketarako txandak sortzea ere. Lorpen izugarria da aste bakarrean argindarra, ura, wifia eta lotarako leku bat martxan jartzea”.

Bizitza Da Handiena kanpainaren aurre-prestaketan okupazioa “ekintza bat gehiago” bezala aurreikusi zen, baina leloaren aldarriari jarraiki, bizitza erdigunean jarri duen espazioa izan da “Herriarron Etxea”, eta militantzia-eredu nekagarritik aldentzea erdietsi du, gozamenerako espazioa sortuz. Egitarautik kanpoko eztabaiden mahai-buelta eta kulturaren oholtza izan da aurretik hautsak hartuta zegoen eraikina. Gauen eta festaren alde ere borrokatu da: Gari donostiarraren emanaldia, bi emakume argentinarek antzerki feminista egin dute, Hatxe eta Eraul musika taldeak eta Andoni gitarra-jolea ere bertan izan dira; eta eskuz esku pasatu dira, ia uneoro, gitarra eta ukelelea.

Pentsaera ugaritako pertsonak ez ezik, askotariko gorputzak partekatu dute espazioa, eta ahaleginak egin dituzte eraikina gune askatzaile bilakatzeko. Normatik kanpoko gorputzetik hitz egin du Irak, transexuala da bera: “Badago lanketa bat eginda, beste identitate batzuen aurkezpena barneratzeko nahia eta ahalegina. Aniztasuna ikusi da, egon da jende nagusia, gaztea, identitate desberdinak, gorputz desberdinak. Hori oso garrantzitsua da. Hala ere, ez da guztiz gune askatzailea izan”. *Bizitza Da Handiena* dinamika saiakerak egin ditu ahalik eta espazio parekideenak sortzeko: eraikinean gela ez-mistoa sortu dute, hau da, ez-gizonentzako gela, bertan esperientziak, balizko erasoak eta erantzun bateratuak partekatuko. Protokolo feminista ere idatzi dute eta asanbladetan “gorputz anitzen erosotasuna” bermatzeaz arduratu den lantaldea osatu dute.

Asanbladak: Anitz eta horizontal

Eguneroko zita garrantzitsuenetakoa asanblada izan da. Arratsaldero 19:30ean hiriko plazetan elkartu dira, egunak eman duena baloratu eta hartu beharreko erabakiak kolektiboki eztabaidatzeko. Gipuzkoa Plazan egin zen lehenengoa, larunbatean, orain bi urteko Gipuzkoa Zutik kanpaldiaren lekukoa hartuta, asanbladaren erdian koloretako *paratxuta* jarrita, aniztasunaren ikur. Orain bi urte kolektiboki adostutako irizpideetatik abiatu dira asanbladak.

Asanbladen dinamikaren kontsentsua idatzi zen, erabakigune ahalik eta horizontalena erdietsi asmotan. Lurrek aipatu bezala, “asanblada izan da aste guztiaren gidaria”.

Eguneroko lanen kudeaketa lantaldeen bidez egin da: Diru-zaintza, komunikazioa, gorputz anitzen erosotasuna, ekintzen antolaketa, sukaldea, asanbladaren dinamizazioa eta eraikinaren azpiegitura. Bitorrek dio berrikuntza izan dela gorputz anitzen erosotasunari begira sortu den lantaldea: “Saiatu gara ingurura begiratu eta ondokoen beharrak identifikatu eta asetzen”. *Bizitza Da Handiena* kanpainara mota guztietako gorputz eta identitateak erakartzen saiatzeaz gain, iritsi berriei informazioa eman zaie, kudeaketarekin zerikusia duen lantalde batera bortxaz sartzeak eragin zitzakeen deserosotasunak saihesteko.

Lantalde horrek berak astearen igarora begirada feministarekin bideratzea zuen helburu, eta asanbladetan izan zuen isla, Haizeak dioenez: “Ez-gizon dezente ausartu dira hitz egitera. Asanbladetan ez da egon gizonaren protagonismoa”.

Kaleko ekintzak: Umil baina indartsu

Aste osoko egitaraua sortu dute, espazio publikoa hartuz eta “publiko” hitzaren benetako esanahia berreskuratuz: kalea hartuz.


Maiatzaren 19an, okupazioaren eguna auzolanean igaro zuten *Bizitza Da Handiena* lelopean. Borrokaren bilgarri eta elkargunea jada prest, astebetean kalean ekintza ugari egin dituzte. Kanpainara atxikitu diren eragileek prestatutako ekimenak izan dira:

Uliara martxa, igandetan irekitzen duten komertzioen aurkako jaietan jai, metroaren aurkako zulaketa Kontxan, fanzine tailerra, Kataluniako presoekin elkartasun ekimena, hirian dauden bi-deobijilantzia kameraren identifikazioa, pentsionisten asanblada, Ernairen “alfonbra gorria” ekimena, hainbat langileri ez dietela ordaintzen salatze Gogoko Goxuak kafetegian croissant eta kafea doan hartzeko ehunka txartelen banaketa, “Urezko kaiolarik ez” kontzentrazioa Aquariumean, Asepeio mutuaren kanpoaldean kontzentrazioa, MTERi gaizki etorria, “Feministok gudarri planto!” kontzentrazioa, “Donostian zer gutxi birziklatzen den erakusteko” errefusaren edukiontzien zigilatzea, Hotel + ez elkarretaratzea, Giri poteoa, Euskal Herriko jaietan animaliez egiten den erabilerari buruzko Gurean dokumentalaren proiektzioa, euskal preso

BIZITZA DA HANDIENA

KANPAINA BABESTU DUTE

Abaraska etxebizitza kooperatiboa
Adil! ustelekeriaren aurkako elkarteak
Aingura kofradia
Aiuri antiespezista
Alde Zaharreko gazte asanblada
Alderdi Ederreko Pentsionisten Asanblada
Aman Komunak
Amara Berriko Superxagu Jai Batzordea
Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Pentsionisten Asanbladak
Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia
Oranizatua
Askapena
Askekintza
Azkoitiko Matadero Ekintzak
Bake Ekintza Antimilitarista
Bakea eta Duintasuna
BizilagunEkin plataforma
CDR Tolosaldea Goierri
CNT sindikatua
Diario Fatxo
Donostiako Asanblada Feminista
Donostiako Ikasle Abertzaleak
Donostiako Komite Internazionalistak
Donostiako Zinemaldi Alternatiboa
ELA
Eleak-Libre
ESK sindikatua
Eguzki
Ernai
Erraustegiaren Aurkako Mugimendua
ESK
Eskifaia kofradia
Euskal Herrian Euskaraz
Euskal Herriko Bilgune Feminista
Firestone
Gelditu Metroa Antiguon.
Gipuzkoa Zutik
Groseko Asanblada Feminista
Groseko Jai Batzordea
Guardetxea
Guneak zabaltzen
Hazten Hasten kultur egitasmoa
Hondarpe Groseko Auzo Elkarteak
Hotel + EZ
Jaizkibel Herriarena
Kalera Kalera
Kimera Antiespezista
Kortxoenea
LAB
Langileen Babes Sarea
Letaman Gaztetxea
Manu Robles Arangiz Fundazioa
Marruma Kulturalak
Olatukoop
Ongi etorri errefuxiatuak
Oraingoan Bai
Oñatiko Antixena gaztetxea
Plaza Feminista
Pototak Asanblada Feminista
Pottogorriak, Arrasateko talde feminista
Salatu
Sare Antifaxista
Satorralaia
STEILAS
Tosu Betirako
Txantxarreka gaztetxea
Txitxibitxiak Antiguako Talde Feminista
Zergatik ez?



politikoekin elkartasunez enkartelada, Mozal Legearen aurkako Libre lasterketa, Fan Hemendik festa, Aldundiaren fatxadan erraustegiaren kontratua erakusteko eskatuz eta ustelkeria salatuz pankartak jartzea, haurren txokolatada, pentsio duinen aldeko manifestazioa, "Zer metro?" Bideoaren emanaldia eta metroaren aurkako bizikleta martxa. Sarean zabaldutako egitarauan, "Zorionak hoteletako langileei" adierazi dute, egitarauan zegoen eta azken unean patronalak beren eskaerak onartu dituen egin behar izan ez duten grebari erreferentzia eginez.

Hitzaldi eta formaziorako tartea ere izan da: besteren artean, Donostiako herri harresian atxilotu zituzten hainbat lagunaren esperientzia, Lurralde Askearen 100 konpromisoen liburuaren aurkezpena, segurtasun digitalari buruzko hitzaldia, Iruñean egingo duten Alternatiben Herriaren aurkezpena, Iñaki Gil de San Vicente Donostia eta Europako kapitalari buruz mintzatu zen, Ainhoa Intxaurrendietak erraustegia eta ustelkeria lotu zituen Angula Ustelak hitzaldiarekin eraikineko epaigela batean...

Ezkerretik eskuinera eta goitik behera:

1. Eraikin publiko baten okupazioarekin abiatu dute astea. **2.** Prentsaurrekoa Eusko Jaurlaritzaren parean, "Ertzaintzaren errepresioa" salatzeko. **3.** Auzolanean txukundu dute "Herritarron Etxea". **4.** Andonik kontzertua eman zuen eraikineko terrazan. **5.** Eraul bakarlarriak girotu zuen osteguneko gaubela. **6.** Tabakalera inguruak ertzainez josita zeuden, Gladys Enea parkean asanblada egin bitartean. **7.** Ertzainek bi lagun atxilotu zituzten Tabakalerako protestan (Argazkia: Irutxuloko Hitz). **8.** Kaleko kameraren presentzia salatu zuten. **9.** Pankarta eta pintada ugari agertu dira Donostian. **10.** Astearte gauean "gaziki-etorria" egin zieten TMEko kideei. **11. eta 12.** Milaka lagun bildu ziren pentsio duinen aldeko manifestazioan. **13.** Ozeanoan bizi daitezkeen arrainentzat Aquariumak "urezko kaiolak" direla salatu zuen Askekintzak. **14.** Kolore guztietako aldarrikapenak batu ziren turismo eredu honen aurkako manifestazioan. **15.** Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak errefusaren zaborrontziak zigilatu zituen. **16.** Feministok gerrari planto, kontzentrazioa Bulebarrean. **17.** Gipuzkoa Zutiken sinboloa kaleetan ibili zen berriro asanblearismoaren lekuko.

Ekimen batzuetan milaka lagun bildu dira, beste batzuetan dozena bat, eta *Bizitza Da Handiena* kanpainen parte hartu duten kideek auto-kritika egiteko tartea ere hartu dute, izan ere, antolatutako ekintzetara "espero baino jende gutxiago" agertu dela esan dute. Horren arrazoietako bat hedabide batzuek kanpainari ezarri dioten zentsura izan daitekeela esan dute, "zenbaitzuen interesen ondorioz". Hala ere, garrantzia eman nahi izan diote astebete ekintzaz bete-zeari eta lortu diren helburuei. "Gure helburuetako bat zirikatzeta zen, eta hori lortu dugu, haiek gure kontra errepresioa erabili badute ere", dio Bittorrek.

Pozik agertu dira borroka sozialaren astea barrutik bizi dutenak. "Kuantitatiboki agian ez da izan espero genuena, baina mezua iritsi da. Garbi erakutsi da beste gizarte justuago bat nahi duen jende asko dagoela", esan du Ilargik. Haizeak, berriz, etorkizunera begiratu du: "Astea oso indartsua izan da. Ikusi dut badagoela gogoia gauza gehiago antolatzeko elkarrekin, ikusi ditut eztabaida politikak eta elkarlana. Saretze prozesu bat hasi da".

Turismoa blindatu du Eusko Jaurlaritzak

Bizitza Da Handiena aste honetan egiteko arrazoia Turismoaren Mundu Erakundeko (TME) ordezkarien bisita izan zen, eta kanpainen helburuetako bat izan da ordezkariok kontraturatu zitezen donostiarrak ez daudela egungo turismo ereduarekin ados. Turistifikazioaren Aurkako Europa Hegoaldeko Hirien SET sareko kide da Donostia, eta gainontzeko hiriekin elkarlanean idatzitako manifestua kongresistei helarazteko ardura zuten. Kursoalean zeudela, ez zuten dokumentua hartu nahi izan.

Turistifikazioaren aurkako bi ekintzatan, Ertzaintzaren erantzuna bizkorra izan da. Astearte gauean *Bizitza Da Handienak* deituta Turismoaren Mundu Erakundeko ordezkariak "gaizki-etorria" egin zieten. Gauez atera ziren kalera, "WTO go home" pankartak eskegi zuten Maria Cristina eta Londres hotelen parean, eta suziri bat bota zuten airera, kongresistak esnatu asmoz. Lehen aldia da historian TMEn protesta egiten zaioa. Gau hartan bost lagun identifikatu zituen Poliziak, tartean ARGIAko kazetari bat.

Asteazkenean, Gladys Enean egin zuen asanblada *Bizitza Da Handienak*,

Tabakalera ertzainez inguratua zegoen bitartean. Kalez jantzitako poliziekin parkea hartzea gutxi ez, eta drone bat ere izan zuten airetik zelatan. TMEaren ordezkariak Tabakaleran luntxa zuten bitartean egingo zen ekintza findu zuten asanbladan: txilibituekin zarata egitea erabaki zuten.

Baina ez zen hain erraza izan. Polizia oldartu egin zen eta porrak aterata kolpeka hasi ziren era baketsuan protestan ari ziren manifestarien aurka. Liskarrean, ertzainek bi lagun lurrera bota eta atxilo eraman zituzten. Autobusekin estali nahi izan zuten protesta soziala, baina erakineko leihotatik begiratzen zuten kongresistei atxiloten momentuaren bideoak helarazi zizkieten ekintzaileek sare sozialen bidez. Gau horretan aske utzi zituzten atxilotuak.

Poliziaren jokabideak ez zuen kikildu *Bizitza Da Handiena* kanpaina eta turistifikazioaren aurkako borroka. Ostiral arratsaldean BiziLagunEkin plataformak deitutako manifestazioan ehunka pertsona atera ziren kalera, eragile desberdinak "turismoak herria hiltzen du" oihuaren pean.

Eta orain zer?

Larunbat gauean "Garaipenaren Festa" egin zuten erakinean, pozak eta nekeak hustu asmoz. "Aste honen amaieran aste hasieran baino indartsuago gaude", aipatu du *Bizitza Da Handienak* kide batek igandean, borroka sozialaren aste-ko azkenengo asanbladan. Eraikineko ateak itxiko dituzte, bukatu da borroka sozialen astea.

Eragile bakoitzaren hiru aldarrikapen jasotzeari ekin dio *Bizitza Da Handienak*, eta horietatik abiatuta, borroka bateratzen jarraitzeko prozesu bat martxan jartzen saiatuko dira.

Baina, orain zer? *Bizitza Da Handiena* dinamikako hamasei lagun identifikatu ditu Poliziak, eta beste bi pertsona atxilotu dituzte. Identifikazioen atzetik epaiketak etorriko dira, eta horren ostean, isunak. Nola egingo diete aurre? Loratuko da berriro "Euskal Erregimenaren" lohian ereindako hazia?

"Herritarron Etxearen" sarraila itxi baino lehen, "*Bizitza Da Handiena*" idatzita eta ukabil adarduna marraztuta zeukan pankarta erretiratu dute fatxadatik. Baina, adi! Beste pankarta bat utzi dute zintzilik: "Jokoak jarraituko du. Laster arte!". ■

Euskal Herriko gatazka armatua

MEMORIA FEMINISTA ERAIKITZEN

ETAren desagitea denboran oso gertu dugun honetan, gatazka armatuaren ondorioak konpontzeko baldintzei dagokienez eraberritutako eszenatokia estreinatu dugu Euskal Herrian. Zikloa ixtera bidean, baina, badago zer ibili oraindik: preso eta iheslarien etxeratzea eta biktima guztien aitortza eta erreparazioa zintzilik dauden egitekoak dira oraindik orain.



Amaia Lekunberri Ansola

@alekunberriansola

Are gehiago, azken aspektu horri dago-kionez, lanak biderkatzen ari zaizkigu. Izan ere, indarkeria jakin baten intentsitatea jaisten doan heinean jendar-tea sostengatzen duten beste indarkeria batzuk azaleratzen ari dira, Emaginek 2016ko Eskola Feministan ohartarazi bezala. Euskal Herriko gatazka politikoaren baitan emandako indarkeria sexuala, biderkatzen ari zaigun lan horren adibide garbia dugu.

Guda testuinguruetan emakumeen gorputzak gerra-arma bezala erabiltze-ko joera historian zehar han eta hemen errepikatua izan da. Hasi Kolonbiatik eta Bosnia-Herzegovinaraino, Txile, Irlanda eta beste hainbeste herrialde tartean hartuta. Emakumeen kontra-ko indarkeria sexualaren erabilpena etsaiaren kontrako arma boteretsuena izan da gatazka testuinguruetan, eta Euskal Herria ez da inolako salbuespena. Esparru eta forma ezberdinetan, espetxe barruko bortxaketetatik kalekoetara, emakumeenganako indarkeria

sexuala hor egon da uneoro. Honako honetan, biktima guztien aitortza ardatz, historiaren kontakizunak orokorrean bazterrean mantendu dituen zenbait eraso ekarriko ditugu erdigunera, denak emakumeek pairatutakoak eta elkarrekin lotura dutenak.

Ana Tere Barrueta eta Mari Jose Bravoren izenak lagundu gaitzakete erasok kokatzen, erasoon biktima mortalak baititugu biak. Ana Tere 19 urte zituela bortxatu eta hil zuten GAE (Grupos Armados Españoles) talde parapolizialeko zenbait kidek Loian. Mari Jose aldiz, 16 urterekin bortxatu eta hil zuten Donostian BVEeko (Batallón Vasco Español) kideek, bikotekidea ere larriki zaurituz, jipoiak eragindako kalteen ondorioz zortzi urte beranduago hil zela. 1977-1980. urteen artean modus operandi berberarekin burututako aldarrikapen politikodun bortxaketa multzo baten biktima tragikoenak ditugu Barrueta eta Bravo, gainontzeko emakume bortxatuak bezala Barne Ministerioko



biktimen zerrenda ofizialetik kanpo geratu direnak. Kasuok, talde parapolizialek burututako hilketa gehienak bezala, ez dute ez sumariarik ez epairik izan, eta erasotzaile zein hiltzaileak zigorgabe aterata dira.

Foro Sozialak Euskal Herriko gatazka utzi dituen argitu gabeko kasuen gainean egindako informearen lehen zatian, zeina heriotzan amaitu diren kasuetara mugatu den, gatazkaren biktima gisa aitortuak izan dira Barrueta eta Bravo. Pausu bat harago, Argituz giza eskubideen aldeko elkarteak argitaratutako informe batean lehen aldiz eta ofizialki aitortzen dira Euskal Herrian emakumeen kontra emandako aldarrikapen politikodun erasoak. Elkarrekin honek luzatutako datuen arabera, eskuin muturreko talde parapolizialek burututako motibazio politikodun bortxaketak hamalau izan ziren – aipatu bi kasuetan biktimaren heriotza eraginez – eta oraindik hainbat kasu daude zehazteke.



1980ko urtarrilaren 17an, ematen ari ziren bortxaketak salatzeko Erreterriako Emakumeen Taldeak deitutako greba eguneko manifestaldia. Herriko eragileen babesa jaso zuten, eta emakumeak joan ziren manifestazioaren buruan.

MEMORANDRA

Erasoak egikaritzera erabilitako modus operandia berbera izateagatik eta epe-tarte batean intentsitate handiz eman izanagatik batera multzokatuak izan dira eraso hauek. 1977 bukaera aldera eman ziren Iruñean lehen aldarrikapen politikodun bortxaketak, 1979 amaiera aldera hasi ziren ematen Bizkaia eta Gipuzkoan, azken lurralde honetan Pasaia eta Irun artean kokatu ziren gehiengoak. Kontzientzia politikoa indartsu zegoen herrietan burutu ziren erasoak, aurretiaz eta estrategikoki pentsatuta zeuden adierazle. Erasoz gertatzen bi erasotzaile edo gehiagok parte hartzen zuten, biktima gazteak aukeratzen zituzten, armatuta eta autoaz ageri ziren, biktimak galdekatu ostean bortxatzen zituzten eta gero bortxaketak politikoki erreibindikatu, gehiago

emango zirela mehatxu eginez. Jarduteko moduaren azken puntua mehatxua izateak agerian uzten du, Argituz-ek azaltzen duen moduan, eraso hauekin biktimitatik harago “euskal nazionalismoarekiko sentikortasuna edo ezarritakoaren aurrean errebeldia partekatzen zuten jendarteko segmentu ezberdinetan ere terrorea eragitea” zutela helburu. Xede horrekin eta historian beste behin, emakumeak gerra-arma modura erabiltzearen teknika klasikoaren aldeko apustua egin zuten.

Emakumeen gorpuak beldurra ereiteko lursail

Begoña Aretxaga antropologoak bere azterketekin iradoki zuenez, “gorputzean eta gorputzetik egikaritutako biolentzia politikoak ezin dio ihes egin sexu

ezberdintasunaren esanahiari”. Gatazka politikoek generoa dute, alegia. Ideia hori azpimarratzen du, Euskal Herriko kasua testuinguru gisa, biolentzia politikoak eta generoa elkar gurutzatzen diren puntua ikertzen aritua den Olatz Dañobeitiak. Honen ikerketan irakurri dezakegu, pertsonak jazartzeko hauek gizarte-harremanetan daukaten mendeko kokapena erabiltzen dela gatazka politiko testuinguruetan ere. Eta generoa gizarte egituratzaile nagusietakoa izanik, aspektu esanguratsua bilakatzen dela gatazka egoeretan alde bat jazarri nahi denean.

“Jazarria den gorputz zehatz eta partikular baten aurkako erasoak berau gainditzen duen gorputz sozial osoarengan edo komunitate zehatz batengan beldurra eragitea bilatzen duela ondorioztatu genezake”, azaltzen du Dañobeitiak. Emakume kondizioak gizon kondizioarekiko daukan mendeko po-

» BEGOÑA ARETXAGA:

“Gorputzean eta gorputzetik egikaritutako biolentzia politikoak ezin dio ihes egin sexu ezberdintasunaren esanahiari”

sizioaz baliatuta emakumeak gerra-arma modura erabili eta bortxatzen direnean, beraz, larderia eta mehatxuaren bitartez komunitate edo pertsona talde baten obedientzia bilatzen ari da erasotzailea.

Beldurraren eraikuntza sozialaren erabilpenaz egiten dugu topo puntu honetan. Beldurra izatez biziraupenerako eta autodefentsarako oinarritzko emozioa izan arren, horren eraikuntza sozialak obedientzia bilatzen du. Mehatxua edo arriskua eragin dezaketen gauzak pertsona bakoitzaren –klase, arraza, ideologia, adin, genero edo sexu– kondizioarekin hertsiki lotuta daudela azpimarratzen du Dañobeitiak, eta sozialki kondizio horien gainean eraikitzen direla beldurak. Hala bada, emakumeak gerra-arma modura erabiltzearen ondo-

rioz generoaren gainean eraikitako bortxaketari beldurrak ideia, balore zein praktika komun batzuk elkarbanatzen zituen komunitate edo talde oso baten obedientzia eta desmobilizazioa bilatzen zituela ondorioztatu genezake.

Emakumeak biktima kondizioa alboratzen

Gerra egiteko arma erabilgarri moduan jo puntuan jartzen zena emakumeen gorputza izanik, komunitate guztari eragitea bilatzen zuen bortxaketaren mehatxuak inpaktu bortitzagoa zuen emakumeengan. Paralizazioaren aurrean beldurra mobilizaziorako erregai bezala erabiltzen asmatu zuten hainbat emakumek ordea, horren adibide argia Oreretan mugimendu feministak bortxaketei emandako erantzun sendoa. Herriko memoria feministaren eraikuntzan lan egiten duen Memorandra taldearen baitan, bortxaketa hauek Oreretan eragin zuten erantzun feministaren kontaketa historikoaren eraikuntzan aritu da Eli Etxabeguren, eta honek "inflexio puntua eta praktikan mugarririk gabea" bezala jotzen du gertakariaren aurrean mugimendu feministak emandako erantzuna. Orduko hartan "beldurra gainditu eta hau aliantza, ahizpatasun, emakumeen arteko kohesio, potentzia handiko diskurtso feminista eta borroka bilakatzeko" emakumeek erakutsitako gaitasunak azpimarratu ditu Etxabeguren.

Gatazka politikoa medio egunero hildakak ematen ziren testuinguru hartan bortxaketei buruzko diskurtso politikoarekin herrian zeuden borroka guztien artean toki bat egitea lan nekeza izan zela kontatu digu Etxabeguren, talde parapolizialekin eta Espainiako Estatuarekin ez ezik herriko mugimendu sozial eta politiko ezkertiarrekin ere emakume subjektutik borrokatu behar izan zutela azalduz. "Honek herriko mugimendu feministaren ahalduntzea eragin zuen", egiten du irakurketa. Errenteriko Emakumeen Taldearen izenean sasoi hartan praktikara eramandako ekintzen artean azpimarratzen ditu bortxaketei erantzuna emateko espreski ateratu zen Garraxi aldizkaria, piketeak, gaua eta kaleak emakumeenak ere badirela aldarrikatzeko gaueko manifestazioa eta 1980ko urtarilaren 17an bortxaketak salatzeke deitutako greba orokorra.



Ezkerretara, Mari Jose Bravo, 16 urterekin BVEek Donostian bortxatua eta hildakoa. Eskuinetara Ana Tere Barrueta, 19 urterekin GAEek Loian bortxatua eta hila.

» Paralizazioaren aurrean beldurra mobilizaziorako erregai bezala erabiltzen asmatu zuten hainbat emakumek ordea, horren adibide argia Oreretan mugimendu feministak bortxaketei emandako erantzun sendoa.

Memoriaren eraikuntzari berebiziko garrantzia ematen dio Etxabeguren, bere hitzetan honek ahalbidetzen baitu identitate berriak sortu, aurrerapausoak eman eta mugimendu feminista aktibatzen jarraitzea. Egiten duen sexu erasoaren kontaketa musu-huts uzten du emakumeei subjektu pasibo izaera ematen dien biktimizazioa, oso-osoan subjektu aktiboak diren emakumeak bistaratzen baititu. Isabel Piper Shafir psikologoak memoria eraikuntza kulturala eta politikoa dela defendatzen bazuen, hemen horren beste adibide bat: gizonak eta emakumeek kontaktatzeko gauza ezberdinen gainean eraikitzen dituztela jakinik, gizonen bizipen pertsonal eta ekarpen partiku-



larra orokor bilakatzeko joera androzentrikoaren aurrean emakumezkoen memoria berreskuratzen duen kontakizuna. Emakumeen bizipenetatik eraikitako kontaketa baten faltan, eraso hauen gaineko irakurketa -halakorik egingo balitz- emakumeen biktimizazioan eroriko litzateke seguru asko, gatazka armatuaren baitan emakumeak subjektu pasibotzat joaz beste behin ere, eta honek etorkizuneko emakumeen identitateetan ezinbestean eragingo luke. Memorandak fin aritu dira ondorengoengana helduko den eragin hori egoki bideratzen.

Memoria lana emakumeen biktimizazio prozesua eten eta hauen agentziaren ukapenari aurre egiteko tresna baliagarria denik ezin ukatu, honek ahalbidetzen baitu gatazkaren irakurketak egiteko momentuan emakumeak ere ahots eta agentzia osoko subjektu aktibo gisa ulertzea. Lan horretan ari dira lerro hauek idazten lagundu duten emakumeak eta beste hainbeste. Emakumeek eraikitako kontaktatzeko plazaratu eta gaurdaino eraikitako iruditeria azpikoz gora jartzen ez ezik, gailendu izan den historia eta berau idazteko modua ezbaian jartzen ari dira. Berdintasunean oinarritutako herri baten eraikuntzari begira ezinbesteko pausua, soilik komunitate osoaren kontaketa barnebiltzen duen memoriak sortu baitezake etorkizuneko jendarte parekideago bat. ■

Aurten herritarrek, hurrengoan entitateek hartuko dute ardura **Euskaraldian**

Oraindik egin ez den 2018ko Euskaraldiak segida izango du 2019an. Orduan entitateek hartu beharko dituzte neurriak etxe barrura eta kanpora begira hizkuntza ohiturak aldatzeko. Maiatzaren 18an, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaleen Topaguneak Udaltop topaketetan aurkeztu zuten orain arte diseinatutakoa.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: UDALTOP

Jasone Mendizabal Euskaltzaleen Topaguneko zuzendariak eta Estitxu Alkorta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkariak “Euskaraldia 2019: arau sozialak iraultzeko babes guneak” proposamena aurkeztu zuten, maiatzaren 18an, Udaltop udaletako euskara zerbitzuen topaketetan, Lasarte-Orian.

Oraindik 2018ko Euskaraldia egiteke dago, alegia, hizkuntza ohiturak aldatzeko herritarrek aktibatzea helburu duen egitasmoa. Udazkenean izango da, baina elkarlanean ari diren bi eragileek esana zuten 2019an bigarren Euskaraldia egingo zela, aldi horretan entitateek protagonista izanda.

2019ko Euskaraldian beraz, entitateei eskatuko zaie hizkuntza ohiturak aldatzeko neurriak hartzea. Neurri eta estilo guztietako entitateek parte hartu ahal izango dute: kirol klubak, elkarteak, hedabideak, ikastetxeak, erakunde publikoak, enpresa pribatuak, tokian tokikoak, herrialde mailakoak, nazioarte mailakoak...

Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak ez zuten entitateentzako neurri zehatzik proposatu Udaltopeko saioan. Hala ere, neurri zehatzak izan daitezkeen adibide

batzuk eman zituzten. Esate baterako, entitate horiek etxe barrura begira honako neurriak har ditzakete: batzarrak euskaraz egitea; lantokian osa daitezkeen “ahobizi” eta “belarriprest” zirkuituak identifikatzea eta babestea; internet bidezko harremana euskaraz egitea. Horiek etxera barrura begira. Kanpora begira berriz, bi proposamen: bezeroari edo dena delako hartzaileari arreta euskaraz eskaintzea eta jendaurreko jarduerak euskaraz egitea.

Egitasmora ahalik eta entitate gehien biltzea da helburuetako bat. Hartzen dituzten neurriek hasiera eta bukaera izango dute, eta era berean, proposamena da hartutako neurri horietako bat atzeraezina izatea. Eman dezagun enpresa batek konpromisoa hartu duela lau hilabetez lan-batzarrak euskaraz egiteko. Bada, lau hilabete ondoren berdin jarraitzea izango litzateke proposamena. Noizbehinkako ekintza zehatzak ez dira ontzat hartuko, egunerokoan aplikatu ahal diren neurriak hartuko dira kontuan.

Entitateen artean, lehentasuna erakunde publikoek izango dute, ondoren gizartearen eragin handia izan dezaketena, eta atzetik etorriko dira tamaina txikiagoko elkarte, enpresa, eta bestelakoak, hala nola, herriko dendak eta enpresak.

Jasone Mendizabalek adierazi zuenez, 2018ko Euskaraldia dela-eta behetik gorako aktibazio lana egiten ari dira herriz herri, baina “ez da nahikoa, babes soziala eskatuko dugu”. Entitateen inplikazioa lortzeko ardura norena den hausnartu du Mendizabalek: “Herriko dendara Euskaraldia dela-eta sortu diren herri batzordeak joango dira, baina Petronorrek parte hartzea hemen gauden denok joanda ere ez dugu lortuko. Aliatuak beharko ditugu. Arantxa Tapia gure ondoan izango ote dugu, adibidez? Eta Urkullu?”.

Estitxu Alkortak gogorarazi zuen entitateen ehuneko ikaragarria batek ez duela euskara planik eta ondorio logiko eta desiragarria izango litzatekeela egitasmo honen ondorioz euskara planak ezartzen hastea.

Udaltopen azaldu zutena proposamen irekia da, uztaila bitartean landu eta urte bukaerarako prest egongo da 2019ko egitasmoa. Aurkezpen publikoa 2018ko Euskaraldia bukatutakoan egingo da, hau da, abenduaren 3tik aurrera. Udaltopen bertan, parte-hartzaileek (batik bat euskara teknikariak) galderak, kezak eta proposamenak biltzeko lan saioa egin zuten eta jasotakoa aurki irakurri ahal izango da Udaltopen webgunean. ■

Hiltzea zor




Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Aurtengo otsailean Ekologistak Martxan eta Pesticide Action Network Europe elkarteek elkarlanean egindako txosten argigarri bat kaleratu dute. Espainiako Estatuko ibaien egoeraren berri ematen du txostenak. Ibai bakoitzaren arroaren kudeaketa eta kontrola Konfederazio Hidrografikoa deitzen diren administrazioen esku daude. Konfederazio horiek 2012an eta 2016an ibaietan topa zitezkeen pestizidak ezagutzeko azterketak egin zituzten eta haien emaitzak eskue-tan osatu dute txostena.

Emaitzak beldurgarriak dira. Pestizida ugari antzeman da, gehienak intsektizidak eta herbizidak. Horietako %70, Europar Batasuna osoan bezala Espainian ere erabili ezin direnak, galerez daudenak. Eta lotura zuzena da, nekazaritza intentsiboagoa eta pestizida aztar-na gehiago ibaietan.

2016ko azterketetan aurkitu diren pestiziden erdia baino gehiago (%55) disruptore endokrinoak dira edo izan daitezkeen susmo handiak daude; hau da, gure hormona sistemari eragiten dioten substantziak dira asko. Ondorioz, estatuko ibaiei *ibai hormonatuak* deitzen zaie.



Guri dagokigunez, alde batetik Ebro ibaiari buruzko datuak azaldu dira, eta bestetik Kantabriko ekialdea deitu duten multzo bakarrean EAEko ibaiei buruzkoak. Bi horien emaitzak ere etsigarriak dira: Ebroko azterketek diote estatuko bigarren ibai kutsatuena dela eta EAEko ibaietakoak, berriz, hirugarrenak. Kontuan hartzen badugu Espainia dela Europa osoan pestizida gehien erabiltzen duen estatua (78.818 tona 2014an), bada, geure ibaietan dugun arrasto hori arduratzeko modukoa da. Hortik geure ingurumen guztira eta geure elikagaietara ez dago koska handirik. Ebron topatu diren 21 substantzietatik 18 legez kanpokoak dira, aspaldi debekatutakoak gehienak. EAEko ibaietan topatutako 17etatik 15 dira debekatu-

Lotura zuzena da, nekazaritza intentsiboagoa eta pestizida aztar-na gehiago ibaietan. Ebro ibaia Espainiako Estatuko bigarren kutsatuena da, eta EAEkoak hirugarrenak. EAEko ibaietan topatutako 17 substantzietatik 15 legez kanpokoak dira.

takoak. Hori gutxi balitz bezala, EAEko ibaietan gehien antzeman den bigarren produktua glifosatoa da, gure osasunerako txarretan txarrenetakoa.

Panorama horrekin proposamenak ez dira beste mundukoak: legea bete-araztea, disruptore endokrinoak gal-araztea, pestiziden erabilera mugatzea (Danimarkan eta Frantzian %50 hamar urtean) eta abar. Hiltzea zor dugu, baina nola da gakoa. ■

Produktu EKOLOGIKOEN banatzaileak



"Cal Valls"



Bisitu gure webgunea: www.biotza.es

BIOTZA

banaketak.sl.



PADURA BARATZA

Gorbeiaren magaleko lurra eta pertsonak aberasten



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Duela zazpi urte Zigoitiako (Araba) lursail batean familia proiektua martxan jartzea erabaki zuten Miguel Garcia de Cortazarrek, Ander Arrietak eta Peggi Jonasek: Padura Baratzaren hastapenak ziren, egun mugimendu handiko etxalde agroekologiko bihurtu dena. Eurek ekoiztutako elikagaiak eskaintzeaz gain heziketa lanean dabilta jo eta su. “Kasik garrantzitsuagoa da guretzat heziketaren alorra”, diote proiektuko kideek.

Kaltetutako lurrari bizia itzultzen

“Lehen urteetan lurrari konposta eta humusa erruz ematen aritu ginen”, diote kideek. Izan ere, etxaldeko inguruak nekazaritzarako erabiliak izan ziren azken 40 urteetan, eta lurrotan pestizida eta herbizida ugari botatzen zituzten aurrekoek. “Hasieran harrituta geunden, belarrik ere ez zelako ateratzen, aurretik erabilitako herbizidek oraindik hor zirauteko”. Barazkiak erein eta jasotzen hasteko lurra mimo handiz tratatu behar izan zutela kontatu dute Padura Baratzako familiakideek.

Zortzi familientzako barazki saskiak osatzen hasi ziren lehen urteetan, baina pixkanaka ekoizpena eta landutako lursailak handitzen joan eta egun 50 familiek jaten dute Padura Baratzako hiru hektarea eta erditik. “Ekoizpen

kantitatea handitzeaz gain, barietate geroz eta handiagoa dugu: frutalak ditugu orain, marrubi, masusta gorri eta andere-mahats gunea ere badugu”. Bost kiloko saskiak osatzen dituzte astero familientzat, eta urtebeterako konpromisoa eskatzen diete.

Etxaldea eskola

Agroekologiaren eta bioeraikuntzaren inguruko gaiak ezagutaraztea ere bada Padura Baratzako kideen helburua. Eskoletako gaztetxoentzako bisitak antolatzen dituzte etxaldean, Slow Foodekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan. “Ziklo osoa erakusten diegu gaztetxoei: nola animaliak izatea garrantzitsua den ongaria ematen digutelako, nola intsektuen beharra dugun polinizatzen dutelako...”.

Helduentzako ere antolatzen dituzte ekimenak Zigoitiako etxaldean. Lurra-ekin zerikusia duten hamaika tailer eta ikastaro egin dituzte urteotan: kosmetika naturala, sukaldaritza, agroekologia tailerra, okintza... Aurrera begirako asmoz galdetuta, hona erantzuna: “Jada martxan dugunarekin jarraitzea eta hobetzea da asmoa, eta natura bizia duen zerbait bezala tratatzen jarraitzea. Denok dugu ardura honetaz hitz egiteko, jendeari gogorarazteko eta gure bidea aldatzeko”. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Ekainak 2: Turtzioz

Ingurumen Eguna Armañóneko Parke Naturalean: pasta ekologikoa egiteko tailerra, puzgarriak eta jolasak.

Ekainak 2: Eskoriatza

XXII. Baserriko produktuen, elikagaien eta eskulanean erakusketa. XXI. Txorimalo Lehiaketa. X. Gazta Lehiaketa. VII. Txapel Lehiaketa.

Ekainak 2: Etxalar

Gazta azoka eta Bortzirietako gazten lehiaketa. Artisautza eta elikadura azoka, bertako dantzak eta musika.

Ekainak 2: Barakaldo

Gereziaren Azoka. Barazki eta esku-langintza produktuen erakusketa eta salmenta.

Ekainak 2: Usurbil

Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak ikastaroa Aitor Etxeandiarren eskutik. 9:00etan Potxoenea Kultur Etxean.

Ekainak 2: Zarautz

Lore eta Landareen XI. Azoka. 10:00etan Zigordia kalean. Lore, sendabelar, kosmetiko naturalak, artisautza...

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

Gure Errepublikan eman eta hartuz, denok ongi bizi gaitzen elkar zaintzen dugu. Sartu Azokan eta ikusi ARGIA Jendeak komunitateari musutruk eman dizkion gaiak. Oraindik ez bazara ARGIAkoa, oraintxu duzu egiteko aukera.

Dagoeneko erabiltzen ez dituzun gauzak, edo norberak etxean, lanean, militantzian egindakoak ARGIA Jendeari emateko aukera dugu. ARGIAko komunitatearen arteko harremanak bultzatuko ditugu horrela. Indartu dezagun indartzen gaituena!

www.argia.eus/azoka • @argiaAzoka

BIZI BARATZEA LAMINA

Altza Porru liburua egin zuten, Jakoba Errekondo-rekin batera, komikilari hauek: Asisko Urmeneta, Unai Iturriaga, "Mattin", Ainara Azpiazu "Axi", Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Joseba Larratxe.

Geroztik, hainbat herritan eskaini izan dute KomikHitzaldia, eta momentuan sortutako marrazkiak dira honako hauek.

Mila esker ilustratzaile hauei, euren sormen lanak ARGIA Jendeari emateagatik. Izan daitezela, herritarrok ARGIA sendotzen jarraitzeko pizgarri!

Ezaugarriak:

- Kartoi gogorrean eginak
- Neurriak: 35 zm x 50 zm.



Bizi Baratzea lamina 1 eta 2

Maiatzaren 31n jarriko dira ARGIAren Azokan eskuragarri.

ARGIA Jendearentzat musutruk

ARGIAko Azokan musutruk eskuratu ditzakegun hurrengo laminak:



Bizi Baratzea lamina 3 eta 4

Ekainaren 7an jarriko dira ARGIAren Azokan eskuragarri.



Bizi Baratzea lamina 5

Ekainaren 14an jarriko da ARGIAren Azokan eskuragarri.

Osteguna Azoka eguna



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Azokan beti egoten da zerbait erosteko aukera. Gustukoa bilatu behar! Baina gustukoa bilatuta ere, normalean burura datorkigun lehen gauza prezioa izaten da; “zenbat balio ote du?”. Diru-logikatik haragoko harremanak ez dira ohikoenak gure merkatuetan. Eta ARGIAri ohikoa, usu, ez zaionez era-

kargarriegi egiten, ez-ohikora jotzen du. Sareko bere Azokan badu tartea muxutruk eman edo hartzeak, eta espazio hori geroz eta gehiago zabaltzea du helburu.

Proiektu berria da eta hilabete gutxi batzuk dira martxan jarri zela, baina dagoeneko Azoka ari da emaitzak ematen eta gustura dago lan-taldea. Mugimendua dabil, saltsa, salgai dagoen zerbait begiratu, muxutruk eskaintzen dena zer den ikusi... Eta egunero izaten da salmentaren bat. Hori garrantzitsua da bai ARGIArentzat, atalak funtzionatzten duen eta bizirik dagoen seinale; baita saldu edo eman nahi duenarentzat ere, mugimendurik ez dagoen lekuan zorte handia beharko baitu bere gaia saldu edo emateko. Katuak, txakurrak, korrika egiteko zinta, liburuak edo jatetxe batean otordua bezalako gauzak topatu izan ditut nik muxutruk ARGIAren Azokan. Pentsa zenbat gauza desberdin!

Bizi Baratzeko marrazkiak

Azokak hasieran izan duen mugimendu horri eutsi eta indartu nahi du ARGIAk bigarren kolpe honetan. Horretarako, Bizi Baratzeara proiektuan lanean ari diren marrazkilarien laguntza baliatuko du. Jakoba Errekondoren hitzaldietan marrazkilariak momentuan egiten dituzten marrazkiak daude mimo handiz gordeta ARGIAren (100 bat marrazki), eta astero horietako bi lamina ARGIA jendearentzat muxutruk jarriko dira, nahi duenak eskura ditzan.

Osteguna izango da Azoka eguna. Astero ARGIAk bi marrazki zintzilikatzeaz gain (mesedez, ez dezala bilduma osoa pertsona berak hartu!), edonork igo dezake muxutruk emateko zerbait nahi duen momentuan; eta ostegunetan Azokan muxutruk eskaintzen diren gaien zerrenda zabalduko da sarean.

Jendea ez omen dago ezer emateko gaur egun. Bada ARGIAren bai, eta geroz eta gehiago izan nahi dugu, gainera. ■



ARGIAko Azokan muxutruk eskuratu ditzakegun hurrengo laminak:



Bizi Baratzeara lamina 6

Ekainaren 14an jarriko da ARGIAren Azokan eskuragarri.



Bizi Baratzeara lamina 7 eta 8

Ekainaren 21ean jarriko dira ARGIAren Azokan eskuragarri.



MURILLO EL FRUTON EUSKARAZ



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Murillo el Fruto (Nafarroa), 1400 inguruan. Herriko 80 biztanlek, banan-banan, jabetzan zituzten lurren eta horientatik ordaintzen zituzten uzta zati edo petxen berri eman zuten. Parean Gil López de Sarasa Erriberriko notarioa omen zegoen, murillotarrek esandakoa txukun-txukun jasotzen. Juan Fortuñoren emazte Romeak Legazpean sail bat zeukan eta almute bat ordaintzen zuen horregatik. Trankazarrako sailarengatik, aldiz, lau imina eta almute bat. Baratzearrekoarengatik, lau almute eta erdi...

Datuok letra gotikoz idatzita jaso ziren *Pechas de Murillo el Fruto* izenburuko liburuxka batean. Herriko udal artxiboan gordeta egon zen luzaroan eta duela mende bat baino gehiago Nafarroako Errege Artxibo Nagusira iritsi zen. Berriki, artxiboko teknikari Maika Munarizek dokumentua Peio J. Monteano historialariari erakutsi zion, eta edukiarekin harrituta, agiria sakon ikertzea erabaki zuten –eta herriz herri dabilen *Navarrorum. Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea* erakusketan ikusgai ipintzea–.

Dokumentuak ez zuen ez datarik ez sinadurarik, baina XV. mendearen hasierakoa zela eta egilea Gil López de Sarasa zela ondorioztatu zuten, garai hartan zeregin horiek Erriberriko notarioari zegozkio. Monteano harrituta gera-



Murillo El Frutoko hilarri hauek XVI. mendean Andre Mariaren eliza eraiki aurrekoak dira, herrian euskaraz egiten zen garaikoak, beraz.

tu zen dokumentuan bildu zituzten euskal toponimoekin: Aitzurieta, Areatzea, Baratzealzinea, Baratzeberrieta, Baratzebideta, Baratzetako hodia, Buztina, Legazpea, Txorrota, Odia, Uarte, Erteko erregua, Uarteko hodia, Garipentzuko zaldia... Toponimo erromanikoak ere baziren tartean (Malpuent, Parral edo Tranca), gaur egun oraindik erabiltzen direnak. Euskarazko izenak ugariagoak izan arren, ia denak galdu dira.

Monteano berehala Patxi Salaberri euskaltzainarekin jarri zen harremanetan eta hark, azterketa linguistikoko sako- na egin ondoren, emaitzak *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaratu zituen. Toponimoez gain, murillotarren

zenbait euskarazko goitizen ere jaso zituen Salaberriek: Johan Biperr (1396an herriko alkatea), María Garizu, Per Arceiz Lucea, Salvador Ederra edo García Zalduna.

Historialariek eta hizkuntzalariek euskarazko toponimiarik gordetzen ez duten herrietan Erdi Aroan euskaraz egiten ez zela uste izan dute orain arte. Baina, Montearen hitzetan, “Murillo el Frutoko petxen liburuak XVI. mendean Nafarroako Erriberan euskara hizkuntza bizia zela frogatzen du”. ■



PETER PFÄLZNER / UNIVERSITY OF TÜBINGEN

Oholtxo asiriarren jarraibideak

Iazko urrian idazkera kuneiformez idatzitako 90etik gora buztinezko oholtxo aurkitu zituzten Bassetki aztarnategian (Kurdistan). Orain Heidelbergeko Unibertsitateko ikerlari Betina Faist-ek K.a. 1250. urteko testuok diotena deszifratu du.

Asiriar Inperioko hiri garrantzitsu baten kokapena adierazten dute, historia-

lari alemaniarren arabera. Mardaman Mesopotamia iparraldeko hiri garrantzitsua izan zen K.a. 2200 eta 1200 urteen artean. Antzinaroko hainbat iturrik aipatzen dute, baina orain arte ikerlariak ez zekiten non zegoen. Buztinetan idatzitako jarraibide horiek hiriaren aztarna arkeologikoak aurkitzeko balioko al dute? ■



Teresa Castro Gutiérrez

“Komikiaren helburua ez da bakarrik lesbianak ikusgarri egitea, modu positiboan ikusaraztea baizik”

Eguneroko buruhausteei umore onez egiten die aurre Anak, *L.S.B.*, *Ana Lesbikomikia!* argitalpeneko protagonistak. Gehitu Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkartearen aldizkarian urteak daramatza agertzen, eta liburura egin du orain jauzi. 5.000 ale atera dituzte, sexu aniztasunari buruzko tailerretan erabiltzeko eta nahi duenak liburutegietan, Gehituren egoitzan edo interneten doan eskuratzeko, besteak beste. Teresa Castro Gutiérrez komikiaren egilearekin hitz egin dugu.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi
ARGAZKIA: DANI BLANCO

Nor da Ana?

Asko irakurtzen dut eta faltan botatzen nuen ordezkakuta sentituaraziko ninduten istorioak irakurtzea, emakume lesbiana gisa ez nituelako halako erreferentziak aurkitzen. Eta erabaki nuen nire historia, beste askoren historia ere izan daitekeena, kontatzea. Horrela jaio zen Ana. Anak bere egunerokoa kontatzen du, batzuetan pasarte dramatikoak, baina umore handiz, hain juxtu esperientzia horiek desdramatizatze eta irakurtzen duten lesbianek ikusi dezaten bizitza betea eta zoriontsua izan dezaketela.

Umoreak rol inportantea du, beraz.

Hainbat gauzaren aurrean bizirauteko modu bakarra da, ez bakarrik komikian, baita bizitzan ere. Eguneroko eragozpenetan trabatuta geratzen bagara, ez dugu aurrera egingo.

Zenbat du Anak Teresatik?

Kontatzen den istorioaren arabera. Batzuk oso pertsonalak dira, eta beste batzuetan gaia da abiapuntua (adibidez, aldizkariak hiesari edo bullyingari dedikatu badio zenbakia, horri buruzko komikia egingo dut), eta gai horren inguruan izan dezakedan esperientziatik hitz egingo dut. Armairutik ateratzeko unea, maitasuna, kirola, gorputzarekiko obsesioa, erlijioa... bezalako gaiak landu ditut, eguneroko gaiak, Anaren ikuspegitik. Ana munduan bizi da eta edozein pertsonari gertatzen zaizkion gauzak gertatzen zaizkio. Zer pasatzen da? Batzuetan lesbiana izateagatik arazo gehigarriak ditugula, eta horiei umoretik eta aldarritik aurre egiten saiatzen da Ana.

Arazo gehigarria diozu. LGBTI eta emakume izateagatik, zama bikoitza du Anak?

Bai, eta uste dut gizartea oraindik ez dela kontziente, zein arreta gutxi jartzen digun emakume gisa eta lesbiana gisa. Emakumeak bigarren mailan gaude, eta lesbianak duela gutxi arte ez ginen existitu ere egiten, emakumeen sexualitatea, hasteko, ez zelako aintzat hartzen edo bi emakumeren arteko sexualitatea bigarren mailakotzat hartzen zelako.

Jorratzen dituzun gai batzuk, gainera, tabu ere izango dira batzuentzat.

Emakumeen arteko sexu harremanak, adibidez. Baina horri buruz ere hitz egin



daiteke eta inor ez litzateke horregatik eskandalizatu behar.

Nola ulertzen duzu komiki hau: zure barrenak husteko behar bat, aldarrikapen bat, besteak laguntzeko erreminta?...

Hasieran nire behar batetik jaio zen, eta gaur egun diozun guztia uztartzen duela esango nuke. Nire aktibismoaren zati garrantzitsua da eta besteak laguntzeko tresna izatea ere nahiko nuke, beste batzuk ez daitezen sentitu ni sentitu izan naizen bezain gaizki, lesbiana izateagatik.

Izan ere, Ana umoretsua dela diozu, baina haurtzarari eta nerabezarari lotutako hainbat pasarte dramatiko aurki ditza-kegu komikian. Egungo gazteek ere hala bizi dutela uste duzu?

Gustatuko litzaidake esatea gauzak asko aldatu direla, baina ez dakit hainbeste aldatu diren. Gutxienez orain sexu eta genero aniztasuna existitu existitzen da, duela 35 urte ni txikia nintzenean bazi-rukielako ez zela halakorik existitzen, eta beste abantaila bat ere badute: gu-txi-gehiago, erreferentzia positiboak di- tuzte, lesbianak ez gaude beti gaizto pa-

» “Lesbianak protagonista dituzten nik aurkitutako komikiak beste gizarte batzuetan zeuden kokatuta, zaila egiten zitzaidan nire burua haiekin identifikatzea”

perean edo ez ditugu zuzenean zainak moztzen izugarri zoritxarrekoak garelako. Eta hori oso inportantea da, nire komikiaren helburu nagusia delako ez bakarrik lesbianak ikusgarri egitea, baita modu positiboan ikusaraztea ere. Duela hogeitaz urte lesbianak ikusgarri egitearekin konformatuko nintzen, baina gaur egun ez, ez da aski, bestela oso mezu negatiboa transmititzen ari garelako: emakume lesbianak ez direla emakume osoak, ez dutelako harreman afektibo-sexualik gizon batekin. Eta galderara bueltatuz, aniztasun batekin bizitzea lehen baino errazagoa ote den oraingo haur eta nerabeentzat? Zalantza handiak ditut, egia esan. Adin konplikatu da, eta horregatik gustatuko litzaidake batez ere horiei iristea komikia.

Oraindik ere horrelako komikiak beharrezkoak baitira...

Aspaldi honetan komikiek gai helduagoak jorratzen dituzte, super-heroietatik eta *Zipi eta Zape* estilotik bestelako lanetara egin dugu jauzi, eta emakume lesbianak ere barne hartu ditu komikigintza horrek, baina oso proportzio txikian. Lesbianak protagonista dituzten nik aurkitutako komikiak beste gizarte batzuetan zeuden kokatuta, AEBetan esaterako, edo *Le bleu est une couleur chaude* komikia Frantziako gizartearen [La vie d'Adele filma inspiratu zuen komikia], eta inguru hori ez da gurea, zaila egiten zitzaidan nire burua haiekin identifikatzea. Ana gertukoagoa dela sentituko dute beharbada Euskal Herriko irakurleek.

Erreferentzia falta horrek ere eragingo du, jendeak lesbianismoari lotuta izan ditzakeen ezezagutzen eta topikoetan.

Eta hain juxtu estereotipo batzuk apurtzea gustatuko litzaidake. Irudiari dagokionez, Anak ez ditu estereotipoak

» “Irudiari dagokionez, Anak ez ditu estereotipoak apurtzen, baina zergatik izan behar du negatiboa Anaren itxura maskulinoak? Zergatik ez aldarrikatu aukera hori?”

apurtzen, nahiko itxura maskulinoari erantzuten diolako, baina beste itxura bat duten emakume lesbianak ere agertzen dira istorioetan, eta aldi berean, zergatik izan behar du negatiboa Anaren itxura maskulinoak? Zergatik ez aldarrikatu aukera hori?

Crowdfunding bidez bildu duzue dirua, komikia atera ahal izateko. Kanpaina martxan jarri eta eraso homofoboak jasaten hasi zinen.

Urteak daramatzat nire konfort gunetik gehiegi atera gabe, eroso sentitzen naizen espazioetan mugitzen. Eta bat-batean crowdfundingaren oihartzunagatik sare sozialetan anonimoen erasoak jasotzen hasia bortitza izan zen niretzat. Nire sexu orientazioarekin sartzeari baino gogorragoa egin zitzaidan nire marrazteko moduarekin sartzeari: “Iraintzen zaitut lesbiana zarelako, baina ez dizut lesbiana deituko, min egingo dizun zerbaitekin sartuko naiz”. Azkenean erabaki genuen ez erantzutea, elur-bola ez elikatzeke, baina publikoki salaketa egin genuen, hori ere beharrezkoa delako. Gertaera honek guztiak berretsi zidan horrelako komikiak beharrezkoak direla.

Zure helburuetarako, formatu egokia da komikia?

Irakurtzeko ohitura gutxi duten nerabeentzat, liburuaren aldean edo eskuorri baten aldean, lengoia erakargarriagoa eta irisgarriagoa izan daiteke. Gutxienez begirada bat emango diozu, ziur, eta gainera, pertsonaiekin identifikatzeko aukera handiak ematen ditu komikiak.

Komiki zaletasun handia al dago?

Zaletasuna badela uste dut. Mangak adibidez jende asko du harrapatuta, baina kontua da irakurketa, oro har, gainbehe-

» “Uste dut komikian nabari dela oraindik nire estiloaren bila ari naizela. Hasierako istorioek ez dute berrienen antzik, ez trazuan, ez kontatzeko eran....”

ra doala. Ez dakit gazteengana iristen garen, batzuek irakurtzeko ohitura lehenago galtzen dutelako. Bestetik, gu gure estereotipo eta motxilekin zamatzen garen bezala, komikiak ere bere zamak ditu, eta hainbatek oraindik uste du komikia umeen kontua dela, istorio hutsalak kontatzen dituela, entretenitzea beste helbururik ez duela... eta liburuak irakurtzen dituen jende askok ez ditu komikiak irakurtzen, pentsatzen duela ez diola ezer berririk ekarriko. Zorionez, aurreiritzi horiek ere aldatzen ari dira.

Zein dira zure inspirazio iturriak?

Hainbeste da irakurri dudana, ez nukeela jakingo esaten, gauza pila bat gustatzen zaizkit. Uste dut komikian nabari dela oraindik nire estiloaren bila ari naizela. Hasierako istorioek, adibidez, ez dute berrienen antzik, ez trazuan, ez kontatzeko eran...

Zer gustatuko litzazuke komiki honek lortzea?

Araua jarraitzen ez duen genero edo sexu aniztasun bat duelako, inor ez dabil gizarte honetan baztertuta edo bakarrik sentitu.

Eta iritsiko da eguna, lesbiana izatea ez dena izango komikiko leit motiva, pertsonaiaren ezaugarri bat gehiago baizik?

Zentzu horretan, bi helburu ditugu kolektiboan: batetik, gutxiengo zapaldu bat izanik, gure historiak argitara ateratzea, lekukotza ematea; eta bigarrena, zuk zeuk diozun moduan, nire genero eta sexu identitatea ez izatea mugatzailerik eta determinatzaile nire bizitzan, eta komiki batean, esaterako, abentura bat bizitzen ari den pertsonaiaren ezaugarri bat gehiago baino ez izatea lesbianismoa. Uneotan, bizi dugun errealitatean, biak dira oso inportanteak. ■

Jack Kerouac-en *Errepidean*

ASKATASUN BILA DABILTZANENTZAT

Hippiak baino lehenago izan zen. Vietnamgo gerraren aurkako mugimendua hasi baino lehen. Are, Vietnamgo gerra bera baino lehen: 1951. urtean bukatu zuen Jack Kerouac idazle estatubatuarrek *On the road* nobela, 1957ra arte publikatu ez zen arren. Sekulako eragina izan zuen AEBetako literaturan (lehenbizi) eta mundu osokoan (handik gutxira), gerora indar handia hartuko zuen kontrakulturaren obra zentralerako bat bihurtzeraino. Eta orain, azkenik, euskaraz irakurri ahal izango dugu.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

2016an Pasazaite argitaletxeak David Foster Wallaceren *Sekula gehiago egin-go ez dudan gauza ustez dibertigarri bat* argitaratu zuenerako jakinaren gainean geunden: Jack Kerouac-en *On the road* euskaraz argitaratzeko asmoa zeukan inportazioko liburuaren espezializatutako editorialak, idazle iparamerikarrei eskainitako “43 Ipar Paraleloa” bilduman. Eta hortzak izerditan hasi zitzaizkigun, XX. mendeko AEBetako nobelagintzaren gailurretako bat baita. Behin plan horren berri izanda, euskaraz eduki arte ez ginen aseko, “Jack Kerouac non ote dago?” galdetzen genuen egunero, Beti Mugan taldeak kanta hartan bezala, aurtengo Literaturariaren programa ikusi genuen arte. Maiatzaren 26an aurkeztu dute azkenik *Errepidean*, Garoa liburu-dendan.

Iñigo Roquek itzuli du eta Zarauzko zita baino lehen hitz egin dugu bera-ekin, galdetzeko ea zergatik duela bi urtetik iragarrita zegoen liburua orain argitaratuko den: gaizki jarritako seinaleren batek okerreko errepidetik eraman du? “Gozamena luzatzeko izan dela esan behar nuke, baina ez da hala izan”, esplikatu du. “Esan dezagun desorduko literatura-itzultzailearen abia-

dura-mugak estuak direla eta zenbait matxura izan ditudala bidean. Liburuak kolpe bakarrean jo behar zaitu; arnasaldi bakarreko jario bat itxuratu behar du; abiada bizian eraman behar zaitu Amerikako kontinentean barrena; ‘eromenezko zurrunbilo’ basa batean, Kerouacen hitzetan. Eta, horretarako, ezin zara tonu egokitik atera, eta horrek patxada eskatzen du, eta nik, nolabait ere, patxada hori aurkitu arte ezin izan dut lana amaitu”.

Kerouac euskaraz irakurtzeko lehenbiziko aukera izango da. Gezurra badirudi ere, Roqueren aurretik inor ez da haren prosarekin ausartu gurean. Hori itzultzaile batentzat problema ote den jakin nahi izan dugu edo, kontrara, askatasun handiagor jokatzeko aukera eman ote dion. Portugaletako itzultzaileak bitxikeria baten berri eman digu: “Jean Etxepareren *Beribilez*-era jo nuen, itu-itsuan, hizkuntza tresnatzeko, jakinik harengan beti badela zer ikasia, eta ez nintzen tronpatu”. Aldudeko medikuaren liburuak sorpresaz beteriko kutxa dira, baina haren laguntzarekin ere, Kerouac Kerouac da eta zenbait pasarte euskaratzeko burua estutu behar: “Lantegirik latzena jazz-kontzertuen

deskribapen xeheak izan dira, bateria-jotzaileen azken izerdi-tantarainokoak ia. Hor, bai, erritmoa, bizitasuna, eroaldi kolektiboa... dena jaso eta sentiberritu behar zen”. Emaitzarekin gustura dago, nolanahi ere; eta azken irakurraldietan “disco bat jartzea bezain atsegina” iruditu zaio euskarazko bertsioa.

Askatasun pertsonalaren bila

Zer da, baina, *Errepidean*? Bada, *beat* belaunaldiaren erreferentziatzeko obra: 1950eko hamarkadako fenomenoak izan ziren *beatnik*-ak, haien txapela, eguzkitako betaurreko borobil, lepo luzeko elastiko eta arropa beltzekin garai bateko kontrakulturaren estereotipo bihurtzeraino. Jarrera berri bat ekarri zuten literaturara, baita literaturatik harago ere: AEBetako gizarte konformistaz asperturik, bizitzeko modu berrien bila hasi ziren zenbait gazte estatubatuar, bestelako balioak, askatasun sexuala, drogak, Asia ekialdeko kultura eta filosofia... Dena jazz musikaren erritmoan.

“Askatasun pertsonalaren bilaketa da, hain zuzen, liburuan proposatzen dena”, azaldu du Roquek. “Ez dakit horrek gurean oso ospe ona izan duen”, esan du gero. “Rikardo Arregik Arestiri idatzi



zinez: 'Euskaldun jendeak artalde izatean jartzen du esperantza'. Gisa berean, itzultzailearen ustez, nobelako protagonista den Sal Paradisek –Kerouac ordezkatzeko duen pertsonaia–, barne-gatzak bizi dauka, askatasun-nahiaren eta izaba/amarekin konplitu behararen artean. Hor dago eleberraren gakoa, Roquek dioenez: "Alde batetik, askatu ezin hori dugu, eta, bestetik, Moriarty/Cassadyren mundua edan beharra, moral-keriarik eta damurik gabea".

Dean Moriarty pertsonaiaz ari da: izengoiti horrekin agertzen da nobelan Neal Cassady idazle eta *beat* belaunaldiko pertsonaia gakoa. Biak, Kerouac eta Cassady, elkarri bizkarretik helduta agertzen dira *Errepidean*-ek munduko hainbat hizkuntzatan izan dituen argitalpenen azaletan. Cassadyk eragin handia izan zuen Kerouacen idazkeran, paper zuriaren aurrean jartzeko jarrera berri bat erakutsi ziolako. Haren eraginpean aldatu zuen estiloa, *The Town and the City* lehenbiziko eleberrian erakutsi zuen idazkera sentimentalagotik "lasterketa estasiatu ero batera" pasaz. Konbentzitututa egin zuen aldaketa gero: hiru astean idatzi zuen *Errepidean*-en lehenbiziko bertsioa, paper jarraitua erabiliz;

Neal Cassady eta Jack Kerouac. 'Errepidean' liburuak nazioartean izan dituen edizio askotan argazki hau erabili dute azaleko ilustrazioan.

» AEBetako gizarte konformistaz aspertuta, beste zerbaiten bila hasi ziren gazteentzat erreferentziazko nobela izan zen *Errepidean*

guztira 36 metro testu, bulkada betean sortuak eta gero, nobela gisa argitaratzeko, moldatuak –testu originala ere publikatuta dago ingelesez, nobelaren 50. urteurrenarekin bat eginez argitaratu zuten edizioan–.

Beat gutxi euskaraz

Hutsune handi bat beteko du itzulpen honek eta akaso bidea irekiko, garai berreko beste idazle esanguratsu batzuen lanak ere euskaraz argitaratu daitezkeen. Allen Ginsberg edo William S. Burroughs-en libururik apenas itzuli dela

aipatu diogu Roqueri: "Ginsbergen *Ulua* Harkaitz Canok itzuli zuen (Armiarman dago), eta, bai, ez dago ezer askorik. Burroughs literatura jonkie-an sartu izan da, eta gurean, noski, halakoek ez dute ia lekurik izan... Uste dut oso urruti geratu zaizkigula hain jarrera bizizale, pertzepzio-hedatzaile eta, tarteka, patetikoak".

Edozelan ere, garai horretako literatura murgiltzen hasita, pixka bat sakonago joateko gonbidapena egin digu itzultzaileak: "Bada emakume poeten bilduma interesgarri bat, *Beat Attitude* izenburukoa; Kenneth Rexroth-en saiakera eta fikzio ederrak; Emmet Grogan-en *Ringolevio* (*Errepidean*-eko Moriarty bezalako atsegin-bilatzaile ero bat bera)...". Eta Kerouacen lanak utzitako oihartzun berriagoak nahi dituenarentzat ere badu proposamenik Roquek: "Lehengoa, Robert Macfarlane-ren *The Old Ways* zoragarria irakurtzen ari nintzela topo egin nuen berriro Kerouacekin: 'Gau aldetik, zaldien zintzarrien txilin hotza iritsi zen. «Zer esan zuen Kerouacek?», galdetu zuen Jonek, denok kanpadendetara abiatu aurretik. «Egin dezagun lo ibaien ondoan, belarriak arazteko»". ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Mendi errusiarrean
nola

Amaia Alvarez Uribe

Maialen Hegi-Lukuren opera primari buruz hitz egingo dugu hurrengo lerroetan. *Girgileri anderea* izenburua eman dio aurtengo Gazteluma IX. Literatur sorkuntzarako burtsan irabazle izan den lanari. Ipar Euskal Herriko idazle gazteak euskaraz idaztera bultzatzeko sortu zuten 2000. urtean eta hau da saritutako zazpigarren lana.

Munia protagonista bipolarra da eta egi-learen xedea irakurlea “eri-ero-tasun” horren aurrean jartzea da. Horretarako kanpotik eta barrutik begiratuko diote gaiari ahots narratibo desberdinek. Lehen pertsona agertuko zaigu protagonistak bere esperientziaren berri ematen digunean eta hirugarren pertsonarekin narratzaileak erakutsiko dizkigu ingurukoek, senideek eta lagunek, nola bizi duten.

Nahasmendu psikologikoak, buruko gaixotasunak, gogo-mina, zoramenak... Azkenaldiko mendebaldeko kulturaren gero eta zabalduago dauden gaitzak dira eta euskal literaturan ere nabari da presentzia areagotze hori. Orain arteko bi adibide azpimarragarrienak Itxaso Martinen *Ni Vera* (2012) eta Alaine Agirreren *Odol mamituak* (2014) dira. Hiru lanotan agertzen dira esperientzia hau bizi izan dutenen testigantza eta ingurukoengan izan duen eragina.

Hegi-Lukuk bipolaritatea fikzioaren bidez kontatzeko saiakera honetan testu mota anitzak erabili ditu: narrazioa, elkarriketak, egunerokoa, sare sozialetako mezuak, gutunak, eta idazteaz gain, azaleko eta bost atal hasieretako marrazkiak egin ditu.


Girgileri anderea

MAIALEN HEGI-LUKU

Elkar, 2018

Maialen Hegi-Luku idazlea (Baiona, 1987).

ISABELLE MIQUELESTORENA



Erabilitako irudi eta sinboloek mitologiatik edaten dute amalurra, lamia, edo katu beltza orriotara ekartzen dituenen, eta larrea eta kalea elkarren arteko lehian kokatu ditu. Protagonista Parisen bizi da, baina trenez ibiliko da joan eta etorrian Baionako gurasoen baserrira eta buelta hirira, osatzeko eta oreka berreskuratzeko.

Koloreei dagokienez, beltza, iluntasuna eta gaua hedatzen dira depresio uneetan, goraldi eta delirioetan aldiz, mila kolorek kitzikatuko gaituzte merkataritza gunetako neoi eta kaletako argietan. Agirreren lanean aldiz, gorria zen nagusi, odolaren, larritasunaren kolorea. Zeharka, ikuspegi kritikoa ere agertzen da, adibidez, protagonistak galdetzen duenean “nork edo zerk du lema atxikitzen?”, gorputzak, gogoak, psikiatrek, laborategi farmazeutikoek? Beraz, bada modurik gai hauetan euskaraz barneratzeko. ■

» DISKOA

Indarra eta sentimenduak



Joxi Ubeda Goikoetxea

Hau egurra! Hau sasoia! Itzela da Tooth Gernika-Lumoko taldearen disko berria. Sei kanta dira, eta CD eta binilozko euskarrietan entzun daitezke. Biak ala biak daude karpetaaren barruan.

Rock eta post-hardcore giroko doinu biziak dira. Erritmo bortitzak, zapalgarriak, errepi-kakorrak, bat-bateko aldaketak, distortsioa, oihuak. Sua darie kantei, grina, indarra eta sentimenduak.


Besteak beste, gerrez eta agintariez gogor mintzo dira: "Guda sofán eroso etzanda dauden agintariek diotenean hasi eta amaitzen da" (*Gudu-zelaiak*). Asier Martinez Mintegi *Pulpo* Porco Bravo taldeko kide zenari eskaini diote kanta bat eta bidenabar beren gustuko talde bat aipatu dute: "Noiz iritsiko da unea zurekin elkartzeko Fugazi soinu banda delarik gure besarkadetan gartzeko" (*Pulpo*).

Baina gehienbat gogoeta egiten dute bizi-tzan hartu behar den jarreraren gainean, izateari buruz, denboraren iragateaz: "Dena dago zure erabakien zain, aurpegia ala ifrentzua, zeuk esan, azken finean bizitza tramite huts bat da, oroitzapen huts bilakatuko gaituena" (*Zu*); "Ireki itzazu begiak eta begiratu ezazu, konturatu zaitez ez zarela hura" (*Ni al naiz?*); baina itxaropena galdu gabe: "Ezgaizak sentitzen gara baina sentitzen dugu eta bada zerbait" (*Ezgaizak*); "Bilatzen nabil inguruotan baina ezin dut aurkitu, galdurik nago baina bada nire barnean indar bat bultzada ematen didana" (*Amaierarik ez...*).

Amaierarik ez...

TOOTH

Bonberenea Ekintzak, 2018



Edorta (gitarra eta ahotsa), Arza (bateria) eta Mirri (baxua eta ahotsa) taldekideen lanaz gain, aipagarria da Iñigo Etxeberrieta eta Victor Garcia teknikariek egin dutena, grabazioan eta masterizazioan, hurrenez hurren. Horrela gauzatu dute horren soinu sendoa, ozena, biribila.

Diskoa jendaurreko emanaldietan aurkezten hasi dira jadanik, han eta hemen. 2015ean kaleratu zuten *Bi* diskoarekin Euskal Herriko, Espainiako Estatuko zein Europako toki ugartan jotzen ibili dira, eta urte eta erdian guztira 70 bat saio egin dituzte. Ez da harritzekoa beren emanaldiak ikusteko eta sentitzeko modukoak izaten baitira. ■



Tooth taldeko hiru kideak.



Euskaraz ari diren irakurle taldeez gain, aurki sahararren kanpamenduetan abian jarriko duten irakurle talde feministaz hitz egin zuten.

Momentu fantastikoa



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: SAREINAK

IRAKURLE KLUB FEMINISTEZ MAHAI-INGURUA

Maiatzaren 5ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

Malen Vilches, Josune Muñoz eta Gema Lasarte mahai-inguruan. Haiekin, literatura eta feminismoa batzen dituen eta ekitaldiaren antolatzaile izan zen Sareinak taldeko kideak eta Gema Lasarteren Gasteizko irakurle klubeko partaideak.


Irakurle klub feministak gaur bezala egituratuta ez zeuden garaiaz hasi dira hizketan. Josune Muñozek –zerbitzu literarioak eskaintzen dituen Skolastikaren sortzailea– duela 30 urteko gosea aipatu du, Euskal Filologian idazle emakumezkoak ikasten ez ziren garaia. Vilchesek irakurle klub deitzen ez ziren baina egiteko bera zuten irakurketa molde kolektiboak gogoratu ditu. *Miedo a volar*, *El cuaderno dorado*, *Mujer habitada*, *Dalloway Andrea*, eta beste. Gaztelaniaz, ezin bestela. Gaur bezala orduan ere mugimendu feministak ikasi beharra zuen, liburu bidezko eztabaidak formakuntza modu bat ziren. Oraingo ordea, “momentu fantastikoa da, *King Kong Teoria*, *Caliban eta sorgina*... euskaraz ditugu!”, dio Muñozek.

Gema Lasartek Gasteizko irakurle kluba gidatzen du duela lau urtez geroztik. Kluba elkarrekin ikasteko proposamenez du, “dialektikak jakintza sortzen du”. Lasartek partaide kopuruari garrantzi berezia ematen dio, alegia, talde handiegiek klubak duen egitekoa ahultzeko arriskua dute. Izan ere, irakurle taldeak plazak dira, denek hitz egiteko, eztabaidatzeko, emakumeak ahalduztzeko prozesu. Mihiari hozka egiten dio partaide guztiek hitz egin arte isilik egiteko. Euskal emakume idazleak lehenesten ditu, gazteak eta klasikoak tartekatatu. Hiru helburu orokorretan definitu ditu irakurle taldeok: eztabaida sortu eta partaideak literaturara eta feminismoa gerturatu. Bi gauza botatzen ditu faltan Lasartek. Batetik, gazte gutxi dabilela irakurle taldeetan. Mugimendu feministan gazteak asko dira eta irakurle taldeetan urri. Bestetik, egindakoa ez gordetzearen kezka du: “Liburu bat komentatzen dugun bakoitzean eskola egiten dugu, hain gogoeta sakonak

unibertsitatean ere ez dira egiten. Momentuko jakintza nola gorde edo nola plazaratu pentsatu beharra dugu”. Lasarteren hausnarketak eztabaida piztu du. Unibertsitatearen ezaugarrietako bat hierarkia izanik, irakurle klubetako lanaz interesik ez duela dio batek. Irakurle taldeak balioan jartzea lortuz gero, agian orduan piztuko zaio interesa. Beste batek anekdota kontatu du: institutueta liburu berak programatzen dituzte urtero, sarri gazteentzat desegokiak, astunak. Halako batean irakasle batek bestelako liburu bat programatu du eta arrakasta izan du. Liburu hori proposatu du irakasle batek beste eskola batean, eta irakasle kideen errezeloak: “Zein da liburua? Nork gomen datu du liburu hori?”. Mugimendu feministatik datorrenari beldurra agian?

Hirugarren batek zalantzan jarri du herri mugimendutik eragin diren irakurle taldeek lotura behar dutenik akademiarekin, “herrikoia herrikoia izaten segi behar du, mugimenduarena da”. ■

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:



1. Alderdi politiko bat bitan bereiztea. Gatz gehiegi duena. 2. Erregela, norma. Debekua, gaitzspena. 3. Euli mando. 4. Loraila. 5. Geldi, lasai. Gauzatzoren bat. 6. Bizkaiko udalerria. Inauterietako pertsonaia. 7. Ezkor. Barazki. 8. Tisiari dagokiona. ...jabe izan, hitzari eutsi.

Goitik Behera:

1. Jateko ona den ur gezetako arrain, berdexka gainaldean eta horixka azpialdean. Dut, Gipuzkoan. 2. Garoa, iratzea. Bizitasuna adierazten duena, intentsitate handikoa. 3. **Argazkian**. 4. Aldarazi. 5. Euskal Idazleen Elkartea. Gorotza. 6. Listua. Parke zoologiko. 7. Altzo, magal. 8. Deitura. 9. Zaren hori. Arrainak harrapatzeko tresna. 10. Joan den urtea. Joan den gauean. 11. Itxura, eite. 12. Helburua, xedea. 13. Gaizto, oker. 14. Pilota-joko. 15. Orban txiki.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Aurpegi, begitarte

Lanuztea

Nabari

Koaderno

Ugaztun karraskari

Huts, akats

Enbor

Muzin egiten duena

Aldarte

Erakustareto

Euskal

Joko-kartetan, sei

Neguko kirola

[illegible]

Sudokua

Erraza

	1				4	6	9	7
	2			1		5	4	
		4		9			1	
			1	6		7		
2	7	6				9	8	1
		9		2	8			
	9			3		1		
	3	2		4			6	
6	4	1	8				2	

Zaila

					8		3	6
7			3		6			8
			9				7	
	4					7		
1	7						4	5
		2					8	
	6				2			
5			4		1			9
4	9		5					

Ebazpenak

[illegible]

Katelin Al Lann. Korrikak liluraturiko bretoia



“Euskal Herrian pasatako momentuek azkarki markatu dute. Bere izaeran arrastoak uzteraino: bretoiera ikasteko prozesuaren abiapuntua behin euskaldun batek luzatu galdera batean kokatzen du. Azken hamar urte hauetan Breitanian zehar burutzen dabilzan Korrikaren sortzailea dugu. *Redadeg* izena jarri diote ekimenari, hots, korrika bretoieraz. Norberaz, hizkuntzaz eta hizkuntzaren aldeko borrokaz hitz egin digu”.

“Bretoiera ikasiz falta zitzaidan kate-begia errekuiperatu dut”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Parisko eskualdeko ume bretoia

“Paris eskualdean handituriko ume bretoia naiz. Beste anitzen gisara, gurasoek haien herria utzi behar ukan zuten, haien bizia irabazteko. Nahiko erregulariki nindoan aitaxi-amaxiren etxera, bretoiera entzuten nuen han. Ez zidaten transmititu, ez zelako hizkuntza baloratua, funtsean, euskararekin gertatu zen bezala. Bretoierarekin dudana harremana birjabetze bat izan da, beranduago ikasi dut”.

Nola agertu zitzaidan birjabetze horren nahia?

Euskal Herritik pasaz! Bretoi identitatearen eta bretoieraren arteko lotura zuek didazue eginarazi. Beti nenbilen neure bretoi izaera aldarrikatzen eta besterik gabe, ondoko galdera pausatuta zidan euskaldun batek: “bretoiera mintzo duzu, beraz?”. Ez erantzunik inarrosi ninduen, beste galdera anitz ondorioztatu zizkidan eta horrela bideratu nintzen berriz bretoierarantz. Hizkuntza gabe, herriarekilako harremana ez zitzaidan naturala iduritzen. Hori horrela, bretoiera ikasten hasi nintzen. Barrenetik sentitu dudana lotura bat dut bretoierarekin eta aldi berean, berriz, ikasiriko hizkuntza dut, paradoxa bat da nonbait, baina... bretoiera ikasiz falta zitzaidan kate-begia errekuiperatu dut.

Bretoierarik gabe ez genuke Breitaniarik?

Zerbait falta genuke, pobretuko litzateke gure identitatea. Bretoiera jakin gabe bretoi gisa definitzen diren anitz herri-tar ditugu, baina uste dut haien buruari egindako gezur bat errepikatzen dabiltzala. Ezer ulertu gabe norberak bere

hizkuntza kantatzea ikaragarria da! Ene gustuko, itxurarik ez du bretoiera jakin gabe bere burua bretoitzat jotzeak, eskizofrenia puntu bat du. Badakit gogorra eta mingarria dela hori entzutea; ni ere egoera horretan egon naiz. Egun batez egoerak interpelatzen gaitu, orduan gertatzen da aldaketa eta hor hasten da aldaketaren eta birjabetzearen bide luze eta astuna. Denek ez dute egiten, hori horrela da, ez diet lehen harria botatzen, baina denek egin dezakete, hau-tu bat dugu oinarrian.

Prozesu pertsonala izateaz gain, kolektiboa ere duzu.

Bai bere alde politikoa ere badu, noski. Hizkuntzaren birjabetzea aldarrikatzen nabil, manifestazio eta ekintzen bidez. Frantziak daraman politika ez da ez onargarria, ez jasagarria. Umeak *diwan*-etan eskolatu ditut. David eta Goliaten borrokaren gisakoa da gurea.

Zer ekartzen dizu borroka honek?

Munduaren parean, koherentzia ekartzen dit. Hizkuntza baten alde militatzea ekologiararen alde militatzea bezalakoa



da, munduan dagoen aniztasunak nau interesatzen.

Zer ekartzen dio munduari?

Aberastasuna, aniztasuna...

Zu zaitugu Bretainiako Korrikaren sortzaileetako bat.

Aspaldian eta usu gabilta Euskal Herrian lagun batzuk, senarra eta ni neu. Behin Korrikan parte hartu genuen, sekulakoa izan zen! Bretainian egin nahi genuen baina ezinezkoa zela pentsatuz, ideia baztertzen genuen. 2008. urtean ospatu genituen *diwan* eskolen 30 urteak. Horren kari, 30 egitasmo burutu genituen, orduan genuen Korrikaren ideia bultzatu, *Redadeg* deitua. Ez zen erraza izan, askok ez zuten ezagutzen, batzuek ezagutu bai baina ez zuten egingarri ikusten... baina hasi eta egin genuen! Funtzionatzen du asmatu duzuen antolaketak, ikaragarria da Korrika!

Plazerrari garrantzia handia ematen diozue.

Mespretxuaren parean kontrapisua izateko gisan. Bestalde, pisua izan daite-

"Biziki konplikatua dugu egoera, baina geroz eta gehiago gara bretoiera hitz egiteaz harro; horrek digu esperantza ematen".

keen guduari lotu ohi dugu gure hizkuntzaren defentsa, alta, ez da hori bakarrik: poesia, sorkuntza, lagunak arteko solasaldiak, hori guztia ere bada bretoiera.

Bretoieraren koloreak duzue aurtengo gaia.

Gehiegitan entzuten dugu "ez dugu bretoiera bera mintzo, hitz egin dezagun frantsesez". Elkar ulertzeko frantsesa ezinbestekoa dugula barneratu ziguten, gehienbat eskoletan. Adineko batzuekin bretoieraz mintzo, "nongoa zara?" galderari erantzun, "ez da bretoiera bera" ihardoki eta frantsesari lotzen dira! Horregatik gabilta ohartarazten bretoiera ezberdin guzti horiek aberastasun bat dakartela. Gaur egun frantsesaren influentzia ere sentitzen dugu, tonu baka-rean hitz egin ohi dugu. Uste dut ezingo dugula hori geldiarazi, baina behintzat balioa eman behar diogu bretoierak

duen azentu tonikoari. Mezu hau luzatu dugu, baina bada zer egin oraindik.

Zehazki zertan da bretoieraren egoera?

%5 ala %8 izan behar gara, frantses ozeano zabal baten erdian galdurik. Biziki konplikatua dugu egoera. Baina geroz eta gehiago gara bretoiera hitz egiteaz harro; horrek digu esperantza ematen. Bretoiera ikasten duten helduen kopurua emendatuz doala ikustea ere baiko-rra da. Umeak *diwanetan* ezartzea ongi da, baina askok haien umeen esku uzten dute bretoiera salbatzeko betebeharra. Arazo bat ere bada hau, eskolan bretoieraz eta, etxeratu eta frantsesa ukatea ez da koherentea. Egun 4.300 ume dira *diwanetan*, umeen %0,5. Eskola elebidu-netan gehiago dira, baina hauetarik ateratzerakoan ez dira denak elebidun oso, anitz dira bretoiera hartzaile.

Egoera latza da, baina itxaropentsua.

Ez dugu esperantza galtzen, segituko dugu bretoieraren alde. Baina ez da sekreturik: hitz egitea, hitz egitea eta hitz egitea, hori dugu gure hizkuntza salbatzeko gilitza. ■



Bizitza Da Handienako hippiek okupatu zuten eraikina hotel bihurtuko dute

Bizitza Da Handiena herri mugimenduak Donostian okupatutako eraikina hotel bilakatuko da, aspalditik zegoen behar bat asetzea helburu, Eneko Goia alkateak azaldu duenez: “Hutsune handia zegoen hirian, ez geneukan nahikoa ostatu bisitan datozkigun guztiak hartzeko. Eta hara non, hutsune hori beteiko du hutsik zegoen eraikin batek, han zegoela ere ez genekienak portzierto. Eskerrak ematen dizkiet hura okupatu zutenei, etxebizitzaren arazoa mahai-gainean jarri eta alternatiba jasagarriak plazaratzeagatik. ‘Bizitza Da Handiena resort’, ez esan hotelaren izena ez denik tentagarria”. Bizitza Da Handiena mugimenduko kideak pozik agertu dira egindako ekarpenarekin: “Izarrak buru gainean soilik nahi genituela esan genuen, eta alkateak mezua aurrenekoan harrapatu du. Hortxe izango dira hotelaren bost izarrak, azken solairuan harro, gure borrokaren ikur”.



Hoteleko arduradunek paratutako pankarta, non iragartzen duten Bizitza Da Handiena eraikinak aurki zabalduko dituela ateak berriro.

SAREAN ARRANTZATUA

Probintzianoak gu? Baita zera ere!



Pilota gogorrago astintzen dutenak ezagutzen ditugu, bai



“Txalet bat erosi problema politikorik eduki gabe” kurtsoa emango dio Ardanzak Pablo Iglesiasi EHUren Udako Ikastaroetan

Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiak esan du Podemoseko buruzagia “loser” bat dela: “Ez dau ba tipoak ia partidua itxi etxetxu bet erosi dauelako? Gatxa da pringauago izetie!”, adierazi du. Nolanahi ere, eskuzabaltasunez jokatzeko prest agertu da politikari ohi eta, horregatik, aurtengo EHUren Udako Ikastaroetan esplikatu du nola bere Urdaibaiko txalet ilegalak ez zizkion problema politikorik eragin. Ikastaroan pertsona bakarri matrikulatu ahalko

da, Pablo Iglesias alegia, eta antolatzen laguntzen ari zaizkionek esplikatu dutenez, Ardanzak hiru ataletan banatuko du ikas-materiala: “600.000 eurogaz Euskadin pipak erosteko be ez dekozu” izango da lehenengoa; “Gure afiliatuei pekatutxu honek ez jake inportetan” izango da bigarrena; eta “Politika itxi baino arinago hartu postutxu bet enpresa pribatuan” sailarekin bukatuko da, azken horretan “aholku orokorragoak” emango ditu.



Ardanzak ezin izan dio barreari eutsi Iglesiasi nolako saltsatan sartu den ikustean.

"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545



ERAKUSKETA SAN TELMO MUSEOA 2018-3-24 // 2018-6-17

ARGAZKI-LIBURUEN FENOMENOA

+ GABRIELA CENDOYA BERGARECHE COLLECTION

Antolatzailea:



Hauekin ekoiztua:



Erakunde babesleak:



Patrono pribatuak:



San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1 20003 Donostia
T. 943 481 580 / www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa